

DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

OSOKO BILKURA · Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL

2013ko OTSAILAK 26 / 26 - FEBRERO - 2013

TOKIA / LUGAR: UDALETXEKO BATZAR ARETOA
SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

EGUNA / FECHA: 2013/02/26

HASIERA / INICIO: 17:00ETAN

BERTARATUAK / ASISTENTES:

PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):

Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi andrea

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):

1. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
 2. Alkateordea, Don Iker Oveja Sobrón jauna
 3. Alkateordea, Don Andoni Iruarizaga Amantegi jauna
 4. Alkateordea, Don Ander Gorrotxategi Legarra jauna
 5. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
 6. Alkateordea, Don Jon Kepa Garro Mendiola garai jauna
- Don Juan Ignacio Martínez Orea jauna

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (BILDU)

Don Urdaspal Bolinaga Mallaviabarrena jauna
Doña Arrate Elkoro Zengotitabengoa andrea
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Pedro Roberto Frontaura Basterra jauna
Doña Deunorone Bizkarra Larrea andrea

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE))

Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Fernando Castillo Rodríguez jauna
Doña Idoia Agorria Martínez andrea

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PP)

Don Juan José Gastañazatorre Urizar jauna
Don Adrian Castro Cebrian jauna

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (ARALAR)

Don Daniel Maeztu Pérez jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

UDAL ARKITEKTO / ARQUITECTO MUNICIPAL

Don Igor Zorrakin Perez

EUSKARA ITZULTZAILE DINAMIZATZAILEA / TRADUCTOR-DINAMIZADOR DE EUSKERA

Don Juan Antonio Atutxa Balentziaga

KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES


Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

IZAERA / NATURALEZA: OHIKOA / ORDINARIA

DEIALDIA / CONVOCATORIA: LEHENA / PRIMERA



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabai-datzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTEN ZIRRIBOARREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, 2012KO ABENDUAREN 18KO ETA 2013KO URTARRILAREN 22KO OHIKOAK ETA 2013KO OTSAILAREN 7KO EZ OHIKOA.

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroak, 2012ko abenduaren 18ko eta 2013ko urtarrilaren 22ko ohikoak eta 2013ko otsailaren 7ko ez ohikoa hain zuzen ere.

BOZKETA egin ostean, Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2012ko abenduaren 18ko Osoko Bilkuraren ohiko akta eta 2013ko urtarrilaren 22ko ohiko akta.**

2013ko otsailaren 7ko ez ohiko aktari buruz.

* **Urkiza Quilez jaunak (Aralar):** 11. orrialdean ez da agertzen nire interbentzioa. Debate bat egon zen, Goiztidi eta nire artean, gero alkatearen interbentzioa bai agertzen da, baina nirea ez.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV):** Ez zeneukan hitza, eta horrexegatik ez da agertzen aktan. Eta ez da agertuko. Mahai gainean utziko dugu kortesia lez.

Hortaz, 2013ko otsailaren 7ko oz ohiko akta **mahai gainean geratzen da.**

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

UNO.- LECTURA Y APROBACION, SI PROCEDE, DE LOS BORRADORES DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES, CORRESPONDIENTES A LAS ORDINARIAS DE 18 DE DICIEMBRE DE 2012 Y 22 DE ENERO DE 2013, Y EXTRAORDINARIA DE 7 DE FEBRERO DE 2013.

DADA LECTURA a los borradores de las Actas de las sesiones anteriores, correspondientes a las Ordinarias de 18 de Diciembre de 2012 y 22 de Enero de 2013, y Extraordinaria de 7 de Febrero de 2013.


PREVIA votación realizada al efecto, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, **APRUEBA** las Actas de los Plenos Ordinarios de **18 de Diciembre de 2012** y de **22 de Enero de 2013.**

En cuanto a la sesión Extraordinaria de 7 de Febrero de 2013.

* Concejal **Sr. Urkiza Quilez (Aralar):** En la página 11 no aparece mi intervención. Hubo una discusión entre Goiztidi y yo, y después, sí que aparece la intervención de la Alcaldesa, pero no la mía.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV):** En aquel momento no tenía la palabra, y por eso no se recoge en el acta. Ni se recogerá. Lo dejaremos sobre la mesa, como cortesía.

Por lo tanto, **queda sobre la Mesa**, el acta correspondiente a la sesión Extraordinaria de 7 de Febrero de 2013.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:

* Udal Arkitektoa **Zorrazin Perez jaunak**: Otsailaren 15eko goizaldeko ordu txikitan, herritar batek Udaltzaingoari deitu zion esanez Larrinagatxun, jatetxetik hurbil, zuhaitz batzuk jausi zirela eta Bitañorako bidean traba egiten zutela.

Udaltzainak eta su-hiltzaileak atontan abiatu ziren bertara, eta lurjauzi bat egon zela hauteman zuten; baina gau iluna zenez, ezin izan zuten asmatu zer puntutaraino zen larria.

Luizi hori Fumbarri enpresak 80 eta 90eko hamarkadetan egindako betelanezik dator, batez ere, fundizioko hondarrena eta hareena; eta 90eko hamarkadan, zigilatu egin zuten.

Betelan horren luiziak Larrinagatxu erreka estali du, errepideraino iritsi da eta hondatu ere egin du; eta gainera, bertatik pasatzea eragozten du. Erreka estalita gelditu denez, ura pilatu egin da; beraz, premiaz egin duten lehenengo gauza da erreka berrera. Hartara, berrira bideratu dute erreka errepidetik bertatik, ura dagokion bidearekin lotzeko beharago, eta hala, ura pilotzea saihesteko.

Ibilgailuak ezin dira bertatik pasatzea, errepidera erorritako lurrik errepidea oztopatzen dutelako eta erreka behin-behinean bertatik bideratu delako. Horrez gain, pertsonak bertatik pasatzea eragotzi behar da, lurrik gehiago mugitzeko arriskua dagoelako.

Udaleko teknikariek eta geoteknia eta lurrik kutsadurako adituek egindako lehen azterketatik ondorioztatu daitekeenez, betelanezik xurgatutako ur-kantitate handiak eragindako presioetatik gertatu da luizia, baita hondoan ez zegoelako nahikoa drainatzerik ere.

Oraindik azterketa zorrotzik eginda egon ez arren, dagoeneko aurreratu daiteke luiziak 10.000 m³ lur baino gehiago izan dezakeela. Betelanean erabilitako materialak kontu hau kudeatzea eta ingurua lehengoratzeko zailtzen du. Izan ere, hango hareak ezin daitezke edozein lekutan utzi.

DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:

* Arquitecto Municipal **Sr. Zorrazin Perez**: A primera hora de la madrugada del día 15 de febrero un vecino llamó a la Policía Municipal, indicando que habían caído unos árboles en Larrinagatxu, cerca del restaurante, y que obstaculizaban el paso en el camino hacia Bitáño.

Inmediatamente acuden al lugar Agentes de la Policía Municipal y Bomberos, y detectan un corrimiento de tierras, pero no pueden adivinar el alcance por ser de noche.


El corrimiento de tierras, procede del relleno que llevó a cabo la empresa Fumbarri, principalmente con escorias y arenas de fundición en los años 80 y 90; y que fue sellado a finales de los años 90.

El corrimiento de gran parte de dicho relleno ha cubierto el arroyo de Larrinagatxu, alcanzando y rompiendo gran parte la carretera e impidiendo el paso. Al quedar cubierto el arroyo se ha producido un embalsamiento de agua, por lo que la primera labor de urgencia que se ha realizado es un bypass, de manera que se ha reencauzado el arroyo a través de la propia carretera para conectar el agua con el cauce natural más abajo y evitar el riesgo que causaría el embalsamiento.

Tanto las tierras que han quedado sobre la carretera como el encauzamiento provisional realizados, impiden el paso de vehículos. También se debe impedir el paso de las personas, por el riesgo de mayores movimientos que presentan las tierras.

De un primer análisis realizado por técnicos municipales y expertos en geotecnia y contaminación de suelo, se deduce que la causa del corrimiento sería la fuerte presión originada por la gran cantidad de agua absorbida por los rellenos junto con un deficiente drenaje de fondo.

A falta de un estudio más exhaustivo, se puede adelantar que las tierras desprendidas podrían superar los 10.000 m³. El material que se empleó en este relleno complica la gestión y la reposición de la zona a su estado original, puesto que las arenas allí empleadas no pueden depositarse en cualquier lugar.



DURANGO


Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Hala bada, ingurua konpontzeko eta berreskuratzeko lanak konplikatuak eta epe luze-koak izango direla aurreikusten da. Lurrak bertatik kendu eta erreka lehengoratu arte, ezin izango da errepiderik zabaldu. Horrek auzoari eragiten dion arazoa ahalik eta arinen konpontzeko, eta premiaz egin beharreko atazak dagozkion erakunde sektorialekin adostuta (Ingurumen Saileko Zabortegien eta Hondakinen zerbitzuak, eta URA Uraren Euskal Agentzia), honako jarduera hauek burutu dira:

- Errekastoa behin-behinean beste leku batetik bideratzeko premiazko jarduerak. Noiz: otsailaren 15ean, 18an eta 19an.
- Geologoaren bisita, eta kutsatutako lurzoruen ingeniartza, otsailaren 15ean bertan.
- Premiaz bertaratu dira udaleko teknikariei eskariz, egoeraren lehenengo balorazio bat egiteko. Balorazio hori kontuan hartu da ondoren egin beharreko lanak zehazterakoan.
- Kaltetutako inguruan sastrakak kentzea, hainbat lan egin ahal izateko: topografia, lagin-zuloak eta abar.
- Inguruko sastrakak kentzea, topografoek landa-lana egin ahal izateko, bai eta hondeamakina bertara iritsi eta lagin-zuloak egiteko, ondoren lurzorua aztertze aldera. Lanen barruan sartzen dira abereentzako itxidura bat ipintzea eta pertsonak zabortegira eror daitezkeen saihesteko hesiren bat jartzea.
- Jasotze topografikoa, jatorrizko lursailarekin alderatzeko eta luiziko lurren bolumena zein den zehazteko.
- Azterketa hori aste honetan emango digute, eta horri esker, premiazko lan guztien benetako kostuaren zenbatespena egin ahal izango dugu. Izan ere, Larrinagatzuko bidea zapaldu eta itxi egin duten lurren kantitate jakin bat kendu egin beharko da bertatik. Kendu beharreko lurrak ez dira bakarrik bide gainekoak; horiek bultzatzen dituztenak ere kendu behar dira, beste luizirik ez gertatzeko.

Las labores de reparación y recuperación se prevén complicadas y largas en el tiempo. Hasta la retirada de las tierras y reposición del arroyo a su estado anterior no podrá volverse a abrir el camino. Con el fin de solucionar el problema generado en el barrio, a la mayor brevedad posible, y una vez consensuadas las labores urgentes a realizar con los organismos sectoriales afectados (servicios de Vertederos y Residuos del Departamento de Medio Ambiente, y URA Agencia Vasca del Agua), se han llevado a cabo las siguientes actuaciones:

- Actuaciones de urgencia para el desvío provisional del regato. Días 15, 18 y 19.
- Visita de geólogo, e ingeniería de suelos contaminados el mismo día 15 de febrero.
- Acuden de manera urgente, a llamada de los técnicos municipales, para realizar una primera valoración de la situación. Dicha valoración ha sido tenida en cuenta para la definición de los posteriores trabajos.
- Desbroce de la zona afectada, para poder llevar a cabo trabajos varios: topografía, catas, etc.
- Desbroce de la zona, con el fin de que puedan realizar trabajo de campo los topógrafos, así como poder acceder la excavadora para realizar catas para el estudio del suelo. Incluye los trabajos para colocar un cierre ganadero y prevenir de caídas al vertedero por personas.
- Levantamiento topográfico, para comparativa con el terreno original y determinar el volumen de tierras desplazadas.
- El trabajo será entregado esta semana, con el cual podrá realizarse una estimación del coste real del total de los trabajos de urgencia, puesto que una cierta cantidad de tierras, que es la que ha aplastado y cerrado el camino de Larrinagatzu deberá retirarse. Las tierras a retirar no son únicamente las que están sobre el vial, si no que deben incluirse las que empujan a éstas, para evitar mayores deslizamientos.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

- Zabortegi inguruan ura ez iragazteko, eta era berean, bertan gelditzen diren lurak desegonkortzea eragozteko, arroila egin behar da errepedearen albo batean, goiko hegaleko urak jasotzeko.
- Azterketa geotekniko bat egin behar da, baliagarria baita lurak premiaz lekuz aldatzea bideragarria den berresteko, eta ondoren, zabortegiaren euspenerako proiektua idazteko.

Ingurumen Sailaren lehenengo balorazioaren arabera, printzipioz ez da beharrezkoa izango zabortegi zaharreko lur guztiak kudeatzea; horren ordez, lurak lehengo lekuan utz daitezke, baina baldintza egokietan eta gaur egungo teknikak baliatuta:

- Lurak lekuz aldatzea bidea eta errekaren ibilgua albait arinen libratzeko, eta horretarako, aurretiaz jakin behar da zer bolumen duten. Lan hori egin ahal izateko, aurreko txostenaren bermea behar da.
- Lurak sailkatzea, arriskutsuak ez diren gaien zabortegira eraman daitezkeela egiaztatzeko. Beharrezkoa da, edozein kasutan, lurren inguruko edozein erabaki hartzeko. Gainera, ura aztertuko da, erreka kutsatu ote den ikusteko.

Errepidean, edota errekan, traba egiten duten lurak kendutakoan, konponketak egingo dira errepide berriro atondu eta jendearentzako zabaltzeko.

Premiazko lanak egin ahal izateko lekuz aldatu beharreko lurren bolumena zein den jakin barik, 112.900 euroko kostua izango duela jotzen dugu, BEZa barne, eta horri gehitu beharko litzaioke lurren leku aldatetaren gastua, hau da, beste 180.000 euro inguru, materialaren berezitasunagatik.

Behin lan horiek eginda, eta premia gutxiagorekin baina dagokion arretaz, honako hauek egin beharko dira:

- Zabortegiaren berreskurapen eta zigilatze lanen proiektua.

- Con el fin de evitar filtraciones mayores de agua a la zona del vertedero que desestabilizarían las tierras allí remanentes se debe ejecutar una cuneta, junto al camino, que recoja las aguas de la ladera superior.
- Elaboración del estudio geotécnico que servirá para confirmar la viabilidad del traslado urgente de tierras, así como para la posterior redacción del proyecto de contención del vertedero.

De acuerdo con la primera valoración del Departamento de Medio Ambiente, no será necesario, en principio, gestionar todas las tierras del antiguo vertedero, sino que éste podrá ser repuesto en adecuadas condiciones, y de acuerdo con las técnicas actuales:


- Traslado de tierras para liberar el camino y el cauce a la mayor brevedad, que debe ser previamente cubicado. Este trabajo podrá realizarse si el informe anterior lo avala.
- Caracterización de las tierras, para confirmar que podrán trasladarse tierras a vertedero de no peligrosos. Necesaria, en cualquier caso, para cualquier decisión sobre las tierras. Además se analizará el agua, para comprobar la posible contaminación del arroyo.

Una vez llevadas las tierras que invaden el camino, y en su caso, el cauce, se realizarán las reparaciones para volver a habilitar el camino y abrirlo al público.

Sin conocer aún el volumen de tierras a trasladar para poder realizar los trabajos más urgentes, se estima un coste de 112.900,- euros, IVA incluido, a los que habría que añadir los del traslado de tierras que podrían alcanzar unos 180.000,- euros más por la peculiaridad del material.

Una vez realizados estos trabajos, y con menor urgencia, pero con la debida diligencia, deberán realizarse:

- El proyecto de recuperación y sellado del vertedero.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

OSOKO BILKURA · Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

- Zaborteziaren berreskurapen eta zigilatze lanak.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Azalpen gehiago emango dira Hirigintza batzordean baina nahi nuen lehenengo momentuan gutxienezko informazio bat izatea.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

HIRU.- "EUSKERA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA 2013-2017", BIDEZKOA BALITZ, ONARTZEA. (EUSKERA, KULTURA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2013KO URTARRILAREN 31KO).

Euskera, Kultura eta Hezkuntza Batzordearen 2013ko urtarrilaren 31ko irizpenaren berri ematen da:

"Udaleko euskera, kultura eta hezkuntza argibide batzordeak, 2013ko urtarrilaren 31n egindako batzarrean, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2013-2017 urtealdiari dagokion Plan Estrategikoa aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza hauxe:

Alde: 6; Andoni Iruarrizaga, Iker Oceja, Jon Kepa Garro, Natxo Martinez (EAJ/PNV), Urdaspal Bolinaga (Bildu) eta Adrian Castro (PP).

Abstentzioak: 3; Pilar Rios, Idoia Agorria (PSE-EE) eta Iker Urkiza (Aralar).

Hortaz, euskara, kultura eta hezkuntza batzordeak aldeko irizpena eman ondoren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2013-2017 Udaleko osoko bilkurara igorriko da berau aztertu eta , hala badagokio, onartua izan dadin."

- Las obras de recuperación y sellado del vertedero.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: El tema se explicará más detalladamente en la Comisión de Urbanismo, pero quería que se contara con una información mínima desde el principio.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

TRES.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL "PLAN DE ACCIÓN PARA LA PROMOCIÓN DEL EUSKERA 2013-2017". (DICTAMINADO POR LA COMISION INFORMATIVA DE EUSKERA, CULTURA Y EDUCACIÓN DE 31 DE ENERO DE 2013).


DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Euskera, Cultura y Educación en sesión de 31 de Enero de 2013, del tenor siguiente:

"La Comisión informativa de Euskera, Cultura y Educación, en sesión celebrada el 31 de enero de 2013, procedió al estudio y votación del Plan de Acción para la Promoción del Euskera 2013-2017. El resultado de la votación es el que sigue:

A favor: 6; Andoni Iruarrizaga, Iker Oceja, Jon Kepa Garro, Natxo Martinez (EAJ/PNV), Urdaspal Bolinaga (Bildu) y Adrian Castro (PP).

Abstenciones: 3; Pilar Rios, Idoia Agorria (PSE-EE) e Iker Urkiza (Aralar).

En consecuencia, la Comisión de Euskera y Cultura emite dictamen favorable en relación con el Plan de Acción para la Promoción del Euskera 2013-2017 y lo eleva a Pleno para su estudio y, si procediere, posterior aprobación."



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Presidenteak euskara teknikariari eskatzen dio planaren zehaztasunak azaldu diezazkiela zinegotziei.

* Euskara Itzultzaile dinamizatzailea **Atutxa Balentziaga jaunak**: Puntu hau eta hurrengoa, berez, elkarren osagarri badira ere, bereizita aurkezteak pentsatu dugu, bakoitzak bere esparruan, berebiziko pisua duelako.

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2013-2017

1. Testuingurua eta lege esparrua.

- 10/1982 Legea, euskararen erabilera arauzkotzekoa Euskal Autonomia Erkidegoan.
- Durangoko Udalaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2005 - 2008.
- Durangoko Udalaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2009 - 2012.

2. Planaren hasiera, ibilbidea eta aurkezpena.

- Plan berria garatzeko proposamena egin zen euskararen aholku batzordean.
- Diagnostiko kualitatiboa egin zen esparru bakoitzeko eragileekin (Guztira: 6 bilera eta 70 gizarte eragile).
- Planaren zirriborroa egin zen esparruka eta helburu estrategikoak aintzat hartuta.
- Zirriborroa kontrastatu egin zen eragileekin batera. Aurkezturiko iradokizunak eta ekarpenak barneratu ziren.
- Zirriborroa aurkeztu zen euskararen aholku batzordean.
- Euskara, kultura eta hezkuntza argibide batzordean aurkeztu zen 2012-12-31n.
- Aipatutako argibide batzordeak aldeko irizpena eman zuen 2013ko urtarrilaren 31n.
- Eta orain osoko bilkurara ekartzen da.

La Presidenta solicita del Técnico de Euskera explique a los/as asistentes el contenido del referido Plan.

* Traductor-Dinamizador de Euskera **Sr. Atutxa Balentziaga**: Este punto y el siguiente, a pesar de ser complementarios, los trataremos por separado, puesto que tanto el uno como el otro tienen un peso específico muy importante.


Plan de Acción para la Promoción del Euskera 2013-2017

1. Contexto y marco legal.

- Ley 10/1982 de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera (CAV).
- Plan general de promoción del uso del euskera en Durango 2005 - 2008.
- Plan general de promoción del uso del euskera en Durango 2009 - 2012.

2. Inicio, recorrido y presentación del Plan.

- Propuesta de elaboración del nuevo plan en el Consejo asesor del euskera.
- Diagnóstico cualitativo con los agentes sociales de cada ámbito (6 reuniones - 70 agentes).
- Redacción del borrador del plan por ámbitos y objetivos estratégicos.
- Contraste del borrador del plan con los agentes sociales e inclusión de las sugerencias y aportaciones.
- Presentación del borrador al Consejo asesor del euskera.
- El 13 de diciembre de 2012 se presentó a la comisión de euskera, cultura y educación.
- El 31 de enero de 2013 dicha comisión informativa emitió dictamen favorable.
- Y ahora se trae al pleno municipal.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

3. Oinarrizko helburuak.

1. Hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta sustatzea euskaraz bizitzeko aukera bermatze aldera.
2. Ekimenak areagotzea euskararen erabilera normalizatzeko maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean.

3. Esparruak eta helburu estrategikoak.

Lehen aipatu dutan bezala, guztira 6 esparru bereizi ditugu:

1. Irakaskuntza, Euskararen Transmisioa eta Helduen Euskalduntze-Alfabetatzea (3 helburu estrategiko eta 13 ekintza).

1.1. Eskolaz kanpoko jarduerak sustatzea: 3 ekintza.

1.2. Helduen euskalduntzea: 4 ekintza.

1.3. Euskararen transmisioa bermatzea: 6 ekintza.

2. Merkataritza eta Ostalaritza (2 helburu eta 5 ekintza).

2.1. Euskararen erabilera indartzea merkataritzan eta ostalaritzan: 2 ekintza.

2.2. Euskararen erabilera indartzea merkataritza eta ostalaritzako hizkuntza paisaian: 3 ekintza.

3. Kirola (3 helburu eta 12 ekintza).

3.1. Euskararen erabilera areagotzea kirol taldeen entrenamendu eta jardueretan: 6 ekintza.

3.2. Euskararen presentzia bermatzea ekitaldi publikoetan: 3 ekintza.

3.3. Euskarazko eskaintza bermatzea udaleko kirol instalazioetako programazioan: 3 ekintza.

4. Etorkinak (2 helburu eta 5 ekintza).

3. Objetivos básicos.

1. Decidir y promover las medidas de política lingüística para garantizar la posibilidad de vivir en euskera.
2. Intensificar las acciones para lograr la normalización del uso del euskera en el ámbito personal, social y oficial.

3. Ámbitos y objetivos estratégicos

Como se ha indicado anteriormente, los ámbitos establecidos son 6:

1. Enseñanza, Transmisión del Euskera y Euskaldunización y Alfabetización de adultos (con 3 objetivos y 13 acciones).

1.1. Impulsar las actividades extraescolares en euskera: 3 acciones.

1.2. Euskaldunización de adultos: 4 acciones.

1.3. Garantizar la transmisión del euskera: 6 acciones.

2. Comercio y Hostelería (2 objetivos y 5 acciones).

2.1. Implementar el uso del euskera en los comercios y hostelería: 2 acciones.

2.2. Implementar el uso del euskera en el paisaje lingüístico de los comercios y hostelería: 3 acciones.


3. Deporte (3 objetivos y 12 acciones).

3.1. Implementar el uso del euskera en los entrenamientos y actividades de los grupos deportivos: 6 acciones.

3.2. Garantizar la presencia del euskera en los actos públicos: 3 acciones.

3.3. Garantizar la oferta en euskera en la programación de las instalaciones deportivas municipales: 3 acciones.

4. Inmigrantes (2 objetivos y 5 acciones).



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

1. Etorkinei egiten zaien harrera euskaraz izan dadila bultzatzea, udal administrazioan zein gainerako erakundeetan: 1 ekintza.
2. Etorkinentzako euskara ikastaroak ematea: 4 ekintza.
5. Kultura (3 helburu eta 17 ekintza).
 - 5.1. Udal mailan euskaraz lanean ari diren kultura taldeen ikuspegiak bateratu, baliabideak planifikatuz: 4 ekintza
 - 5.2. Euskaraz lan egiten duten talde estrategikoen lana bultzatu: 2 ekintza
 - 5.3. Euskarazko kulturaren transmisioa bermatu: 11 ekintza
6. Komunikabideak (2 helburu estrategiko eta 5 ekintza).
 - 6.1. Euskararen erabilera indartzea komunikabide pribatuetan : 3 ekintza.
 - 6.2. Euskararen erabilera indartzea Durango Irratian: 2 ekintza.

Honez gain, eta udaleko Berdintasun sailarekin elkarlanean, genero-ikuspegia ere barneratu da ekintzetako bakoitzean.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:


* **Maeztu Perez jaunak (Aralar):** Gure aldeko bozka iragarriko dut, baina era berean zalantza batzuk ditugu. Alde batetik ondo ikusten dugu euskara sustatzeko plan bat udalerrri eta administrazio osoarentzat, baina betidanik egin dugun kritika jarraituko dugu egiten, hau da, urtero balorazioak egiten dira hainbat ekintzen inguruan, helburu estrategikoen barruan sartzen diren ekintzen inguruan, baina beti botatzen dugu faltan jakitea ekintza horiek, urtez urte errepikatzen direnean, nolako ekarpena egiten dioten euskara sustatzeari. Egiten dira balorazio kuantitatiboak baina balorazio kualitatiboa falta zaigu jakiteko errepikatzen diren hainbat ekintza benetan euskara sustatzeko balio duten edo ez.

1. Impulsar la recepción en euskera a los inmigrantes tanto en la administración municipal como en el resto de organismos: 1 acción.
2. Impulsar la enseñanza del euskera entre los inmigrantes: 4 acciones
5. Cultura (3 objetivos y 17 acciones).
 - 5.1. Unificar los puntos de vista, planificación y recursos de los agentes culturales que desarrollan su labor en euskera y el Ayuntamiento: 4 acciones.
 - 5.2. Impulsar que las asociaciones estratégicas que realicen su labor en euskera: 2 acciones.
 - 5.3. Garantizar la transmisión de la cultura en euskera: 11 acciones
6. Medios de comunicación (2 objetivos y 5 acciones).
 - 6.1. Implementar el uso del euskera en los medios de comunicación privados: 3 acciones.
 - 6.2. Impulsar el uso del euskera en Durango Irratia: 2 acciones.

Además, y conjuntamente con el área de Igualdad, se ha incluido la perspectiva de género en cada una de las acciones.

ABIERTO debate se producen las siguientes intervenciones:

* Concejál **Sr. Maeztu Perez (Aralar):** Quiero anticipar que votaremos a favor, pero tenemos algunas dudas. Por un lado, nos parece positivo que haya un Plan de Promoción del Euskera tanto para el municipio y como para la administración, pero seguiremos criticando lo que hemos venido criticando siempre, que es el hecho de que todos los años se valoran diversas actividades integradas en los objetivos estratégicos, pero siempre hemos echado de menos saber qué aportan dichas actividades a la promoción del euskera cuando se repiten año tras año. Se efectúan valoraciones cuantitativas, pero nos faltan valoraciones cualitativas, para saber si las actividades que se repiten sirven realmente para promover el euskera.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ekintza konkretu baten inguruan gure zalantzak daukagu: Hedabide pribatuen euskararen erabilera indartzea; hemen euskarazko bertsioan agertzen da "gainontzeko hedabideei diru-laguntzak ematea" ekintza bezala, baina gaztelerako bertsioan agertzen da "elebitan argitaratzen duten komunikabideei diru-laguntzak ematea". Ez da gauza bera "gainontzekoak" edo "elebidunak" izatea, beraz, gure zalantza da ez dugula ikusten ofizialak diren bi hizkuntzetan argitaratzen duten komunikabideei euskara sustatzeko plan baten barruan inongo diru-laguntzarik eman behar zaienik.

Euskara sustatzeko plan bat da eta uste dugu, bakarrik euskaraz argitaratzen duten komunikabideentzat bideratu behar direla diru-laguntzak. Atal berdinean, euskara zerbitzuaren aldetik ematen den itzulpen, zuzenketa eta aholkularitza zerbitzua bai ikusten dugu Durangoko eragileei eskaintzea zerbitzu moduan, baina ez dugu ikusten hedabide pribatuei horrelako zerbitzurik eman behar zaienik udalaren partetik.

* **Agorria Martinez andreak PSE-EE (PSOE):** Guri dagokigunez, ondo deritzogu gaur ekartzen den Euskara sustatzeko ekintza planari eta udal barneko euskararen erabilera planari ere bai. Horregatik aldeko bozka emango diogu eta amaitu baino lehen gure eskerrik beroenak eman nahi diegu Juan Antonio Atutxari eta Iker Ajuriagerrari egingadako lanarengatik.

* **Bolinaga Mallabiabarrena jaunak (Bildu):** Lehenengo eta behin zorionak eman Juan Antonio Atutxari eta, ESEPz hitz egiten ari garenez, Fernan Ruizi ere bai, eta ez Ikerri, ze Iker, batez ere, Udal barruko euskara planaz arduratu da, baina horretarako batzorde euskararen aholku batzordera joan behar da, baina batzorde horretara, zoritxarrez, gure alderdikoak baino ez gara joaten. Agian arrazoia izan daiteke beste batzordeetan ordaindu egiten dela, eta honetan ez? Ez dakit, bakoitzak jakingo du bere kontzientzia nola daukan.

Nik zoriendu egiten ditut, gainera esparruka egingadako lan bat da, oso ondo pentsatutakoa: partai-


Concretamente, nos surgen dudas respecto al punto de refuerzo del uso del euskera en los medios de comunicación privados, ya que en la versión en euskera, dice: "gainontzeko hedabideei diru-laguntzak ematea", es decir, conceder subvenciones a los demás medios de comunicación, mientras que en la versión en castellano dice: "conceder subvenciones a los medios de comunicación bilingües". No es lo mismo que sean "los demás" medios de comunicación que "los bilingües"; la cuestión es que no compartimos la idea de que se tengan que conceder subvenciones integradas en un plan de promoción del euskera a los medios de comunicación publicados en las dos lenguas oficiales.

Se trata de un Plan de Promoción del Euskera, por lo que creemos que las subvenciones deben ir dirigidas a los medios de comunicación publicados únicamente en euskera. En la misma sección, vemos apropiado que el servicio de traducción, corrección y asesoramiento ofrecido desde el servicio de euskera pueda prestar servicio a los diferentes agentes de Durango, pero no compartimos la idea de que el Ayuntamiento deba ofrecer un servicio de este tipo a los medios de comunicación privados.

* Concejala **Sra. Agorria Martinez PSE-EE (PSOE):** En lo que a nosotros nos concierne, nos parece bien el Plan de Acción para la Promoción del Euskera tratado hoy aquí, y también el Plan del Uso del Euskera del la Administración Municipal de Durango. Por tanto, votaremos a favor. Y antes de finalizar, queremos mostrar nuestro más sincero agradecimiento tanto a Juan Antonio Atutxa como a Iker Ajuriagerra por la gran labor realizada.

* Concejala **Sr. Bolinaga Mallabiabarrena (Bildu):** En primer lugar, queremos felicitar a Juan Antonio Atutxa, y como estamos hablando del Plan de Acción para la Promoción del Euskera, también a Fernan Ruiz y a Iker, ya que ha sido Iker quien se ha ocupado principalmente del plan intramunicipal, pero para ello hace falta acudir al Consejo Asesor del Euskera al que, por desgracia, sólo acudimos los de nuestro Grupo. Tal vez, sea porque en los demás consejos se paga y en este no. No sé, allá cada cual con su conciencia.

Yo les felicito, porque además es un trabajo llevado a cabo por sectores, muy bien pensado



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

detza sustatzen da, hau da, esparru bakoitzean eragileak elkartu ziren eta beraiek pentsatu zuten zein helburu markatu 5 urteko plangintza-aldirako. Eta orrekin ados nago, partaidetza bidez egindako lan bat delako. Horretaz gain, berdintasun irizpideak kontuan hartu dira, hau da, zeharkakotasuna landu da beste batzordeekin batera. Horrexegatik, berriro ere, nire zorionak guztiei. Era berean, animatu egin nahi ditut zinegotzi guztiak parte hartzera.

* 5. Alkate andrea Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV): Guk esan behar dugu euskaraz bizi nahi ez duena ezin dugula behartu, baina gure esku dago euskaraz bizi nahi duenari baliabideak eta tresnak bermatzea eta eskura jartzea, horretarako eskubidea dutelako hain zuzen ere. Guk honen alde egingo dugu bozka, beraz, aldeko botoa emango diogu plan honi.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaiza hauxe:

- Aldeko botoak: HEMERETZI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 6 Bildu, 3 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Aralar.
- Kontrato botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: BI, 2 Alderdi Popularra.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK,
gehiengoaren botoarekin, **EUSKARA**
SUSTATZEKO EKINTZA PLANA 2013-2017
ONARTU EGITEN DU, betiere, zirriborroan jasotzen den testu osoa aintzat hartuta eta akta honi erantsen zaiona 1. eranskin moduan.

y basado en la participación, ya que se efectuaron reuniones entre los agentes de cada sector, y fueron ellos quienes marcaron los objetivos a alcanzar en el periodo de 5 años del planeamiento. Y estoy de acuerdo, porque se trata de un trabajo llevado a cabo desde la participación. Además, se han tenido en cuenta los criterios de igualdad, es decir, se ha trabajado la transversalidad con el resto de comisiones. Por ello, vuelvo a felicitar a todos. Y asimismo, animo a todos los ediles a que participen.


* 5ª Tnte. de Alcalde Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV): Nosotros debemos decir que no podemos obligar a nadie que no quiera vivir en euskera a que lo haga; sin embargo, sí está en nuestras manos garantizar los recursos y herramientas pertinentes a quienes sí quieren vivir en euskera, puesto que tienen derecho a ello. Nosotros votaremos a favor, y por ende, también votaremos a favor de este plan.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: DIECINUEVE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 6 de Bildu, 3 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 de Aralar.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: DOS, del Partido Popular.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA el PLAN DE ACCIÓN PARA LA PROMOCIÓN DEL EUSKERA 2013-2017**, conforme al texto íntegro que figura en el borrador sometido a la consideración de los/as Corporativos/as y que se acompaña como Anexo 1 de la presente Acta.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

LAU.- "UDAL BARNEKO EUSKARAREN ERABILERA PLANA 2013-2017", BIDEZKOA BALITZ, ONARTZEA. (EUSKERA, KULTURA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2013KO URTARRILAREN 31KOA).

Euskera, Kultura eta Hezkuntza Batzordearen 2013ko urtarrilaren 31ko irizpenaren berri ematen da:

"Udaleko euskera, kultura eta hezkuntza argibide batzordeak, 2013ko urtarrilaren 31n egindako batzarrean, *Udal barneko Euskararen Erabilera Plana 2013-2017* urtealdiari dago-kion Plana aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza hauxe:

Alde: 5; Andoni Iruarrizaga, Iker Oveja, Jon Kepa Garro, Natxo Martinez (EAJ/PNV), eta Adrian Castro (PP).

Abstentzioak: 4; Urdaspal Bolinaga (Bildu), Pilar Rios, Idoia Agorria (PSE-EE) eta Iker Urkiza (Aralar).

Hortaz, euskara, kultura eta hezkuntza batzordeak aldeko irizpena eman ondoren *Udal barneko Euskararen Erabilera Plana 2013-2017 Udaleko osoko bilkurara igorriko da berau aztertu eta , hala badagokio, onartua izan dadin."*

Presidenteak euskara teknikariari eskatzen dio planari buruzko zehaztasunak azaldu diezazkiola zinegotziei.

* Euskara Itzultzaile dinamizatzailea Atutxa Balentziaga jaunak: Euskara Plana 2013-2017 udal administrazioan:

1. Testuingurua eta lege esparrua.

➤ 10/1982 Legea, euskararen erabilera arautzen duena Euskal Komunitate Erkidegoan.

CUATRO.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL "PLAN DEL USO DEL EUSKERA EN EL AYUNTAMIENTO 2013-2017". (DICTAMINA DO POR LA COMISION INFORMATIVA DE EUSKERA, CULTURA Y EDUCACIÓN DE 31 DE ENERO DE 2013).

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Euskera, Cultura y Educación en sesión de 31 de Enero de 2013, del tenor siguiente:

"La Comisión informativa de Euskera, Cultura y Educación, en sesión celebrada el 31 de enero de 2013, procedió al estudio y posterior votación del Plan del Uso del Euskera en el Ayuntamiento 2013-2017. El resultado de la votación es el que sigue:

A favor: 5; Andoni Iruarrizaga, Iker Oveja, Jon Kepa Garro, Natxo Martinez (EAJ/PNV) y Adrian Castro (PP).

Abstenciones: 4, Urdaspal Bolinaga (Bildu), Pilar Rios, Idoia Agorria (PSE-EE) e Iker Urkiza (Aralar).


En consecuencia, la Comisión de Euskera y Cultura emite dictamen favorable en relación con el Plan del Uso del Euskera en el Ayuntamiento 2013-2017 y lo eleva a Pleno para su estudio y, si procediere, posterior aprobación."

La Presidenta solicita del Técnico de Euskera explique a los/as asistentes el contenido del referido Plan.

* Traductor-Dinamizador de Euskera Sr. Atutxa Balentziaga: Plan de Euskera 2013-2017 en la administración municipal:

1. Contexto y marco legal.

➤ Ley 10/1982 de Reglamentación del Uso del Euskera, de la Comunidad Autónoma Vasca.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

- 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoarena, herri-administrazioetako euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren oinarriak ezartzen dituena.
- 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomi Erke-degoko herri-administrazioen hizkuntza normalkuntza prozesua arautzen duena.
- Euskara Plana 2008-2012.
- Udaleko Euskararen Araudia.

2. Planaren hasiera, ibilbidea eta aurkezpena Udaleko Buruekin eta langile gehienekin adostu da.

Lanpostu guztien eginkizunak aztertu dira, eta zein hizkuntzetan egiten diren ere bai.

Euskara Plana 2013-2017ren zirriborroa prestatu ostean, udal langileek zirriborroari egini-ko iradokizunak eta ekarpenak ere barneratu dira.

3. Oinarrizko helburuak.

1. Euskara zerbitzu-hizkuntza (70 ekintza).
Euskara zerbitzu-hizkuntza izan behar duela esaten denean hauxe esan nahi da: herritarrei begira ateratzen diren ohar, bando eta argitalpenak bi hizkuntzetan joan behar direla.
2. Euskara lan-hizkuntza (17 ekintza).
Udal administrazioan, kasurik gehienetan, idatziak gaztelaniaz egiten dira eta, gero, kanpora atera baino lehen, euskaratu egiten dira. Euskara lan-hizkuntza izatea esan nahi du udal langileek euskaraz sortuko dituztela idatziok eta gero gaztelaniara itzuliko direla. Alegia, orain egiten denaren alderantziz.

- Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca, establece las bases del proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas.
- Decreto 86/1997, regulador del proceso de normalización lingüística en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma Vasca.
- Plan de Euskera 2008-2012.
- Normativa Municipal del Euskera.


2. Inicio, recorrido y presentación del Plan Consensuado con los Jefes de Departamento y los empleados municipales.

Se ha procedido al estudio de las funciones de cada puesto de trabajo y el idioma en el que se llevan a cabo.

Tras la presentación del borrador del Plan 2013-2017 se han incorporado las sugerencias realizadas al mismo.

3. Objetivos básicos.

1. Euskara idioma de servicio (70 acciones).
Lo cual significa que todo tipo de escrito dirigido a la ciudadanía, sean avisos, bandos, publicaciones, etc., deben ir en los dos idiomas oficiales.
2. Euskera lengua de trabajo (17 acciones).
La administración municipal, en la mayoría de los casos, produce los textos en castellano y, luego, a la hora de hacerlos públicos, son traducidos al euskera. Que el euskera sea lengua de trabajo significa que los citados textos se generarán en euskera y, posteriormente, serán traducidos al castellano, justo lo contrario de lo que se hace ahora.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

3. Udal programetako euskarazko eskaintza handitzea (18 ekintza).

Atal honetan, batez ere, udalak eskaintzen dituen ikastaro, tailer, hitzaldi eta holakoez dihardugu, eta helburua da aipatutako guztien euskarazko eskaintza handitzea.

4. Herritarren euskarazko eskaria handitzea (7 ekintza).

Puntu hau aurrekoarekin lotuta dago. Alegia, herritarren euskarazko eskaria areagotzea lortzen badugu, udalak eskaintzen duen euskarazko programazioa ere areagotuko dugu proportzio berean.

Laburbilduz, 4 helburu ezarri dira eta, guztira, 112 ekintza proposatzen dira.

4. Irizpide nagusiak.

1. Helburuak lortzeko orduan egungo egoera izan da kontuan.
2. Hizkuntza baten ekoiztuko da eta euskara zerbitzuak egingo ditu itzulpenak. Apurka-apurka euskarazko ekoizpena indartuz joango gara.
3. Dokumentu guztiak bi hizkuntzetan egon daitezen bermatuko da.
4. Hizkuntza eskubideak bermatuko dira: monitoreak elebidun izan daitezela, programak euskaraz eman daitezela, e.a.
5. Euskara lan-hizkuntza deneko egoerak identifikatzea.

5. Hartu beharreko neurriak.

Neurriak hartuko dira ondorengo 13 esparrutan:

3. Incrementar la oferta de programas municipales en euskera (18 acciones).

En este apartado se incluyen los cursos, talleres, charlas, etc., ofertados por el Ayuntamiento, y el objetivo que se pretende es ampliar la oferta en euskera de los mismos.

4. Incrementar la demanda en euskera por parte de la ciudadanía (7 acciones).

Este punto está relacionado con el anterior, puesto que si conseguimos incrementar la demanda en euskera por parte de la ciudadanía incrementaremos en la misma proporción la oferta de la programación municipal en euskera.


En resumen, son 4 los objetivos marcados, y el total de acciones incluidas alcanza las 112.

4. Criterios.

1. Objetivos realizables partiendo de la situación actual.
2. Se producirá en una única lengua y se traducirá a través del servicio de euskera. Se aumentará progresivamente la producción en euskera.
3. Se garantizará que todos los documentos estén en ambas lenguas.
4. Se garantizarán los derechos lingüísticos. P.ej.: que los monitores sean bilingües, oferta de programas en euskera, etc.
5. Se identificarán las situaciones en las que el idioma de trabajo sea el euskera.

5. Medidas a adoptar.

Se adoptarán medidas en los siguientes 13 ámbitos:



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

1. Hizkuntza gaitasuna, prestakuntza eta kontratazioa.
2. Udal harremanak.
3. Udal batzordeak, gai-zerrendak, aktak eta dokumentazioa.
4. Udal erregistroa.
5. Udalaren ebazpenak eta argitalpenak.
6. Idazkunak, errotuluak, leku-izenak eta bi-deko seinaleak.
7. Administrazio-kontratuak.
8. Udal instalazioen erabilera.
9. Diru-laguntzak.
10. Udalak antolatutako ikastaroak, tailerrak eta hitzaldiak.
11. Barne-harremanak.
12. Baliabide informatikoak.
13. Hizkuntza eskubideak garatzeko zerbitzu publikoa.


EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Lehenengo eta behin eskerrak ematea euskara Teknikariari emandako azalpenengatik eta esatea guk aldeko bozka emango diogula puntu honi. Ezinbestekoa ikusten dugu udal barneko euskararen erabilera plan bat martxan jartzea edo, kasu honetan, jarraitzea lehendik martxan zegoenarekin. Azken finean zerbitzu publiko bat eskaintzen du udalak eta Durangoko euskal hiztunei zerbitzu hori euskaraz ematen dela bermatzeko ezinbestekoa da udal barneko euskararen erabilera plan bat martxan jartzea eta bertan jasota dagoena betearaztea.

1. Capacitación lingüística, formación y Contratación.
2. Relaciones municipales.
3. Comisiones municipales, actas y documentación.
4. Registro municipal.
5. Resoluciones y publicaciones.
6. Inscripciones, rotulación, nombres de lugar y señales viarias.
7. Contratos administrativos.
8. Uso de instalaciones municipales.
9. Subvenciones.
10. Cursos, talleres y charlas organizadas por el Ayuntamiento.
11. Relaciones internas.
12. Recursos informáticos.
13. Servicio Público Garante de los Derechos Lingüísticos.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejál **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: En primer lugar, quiero dar las gracias al Técnico de euskera por su exposición, y quiero añadir que nosotros votaremos a favor en este punto. Consideramos que es verdaderamente necesario poner en marcha un Plan del Uso del Euskera en la Administración Municipal de Durango, o en este caso, dar continuidad al plan existente. Al fin y al cabo, el Ayuntamiento ofrece un servicio público, y para garantizar que los vascoparlantes reciben ese servicio en euskera, resulta imprescindible que el Plan del uso del Euskera Intramunicipal sea puesto en marcha y que se cumpla su contenido.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

* **Agorria Martinez andreak PSE-EE (PSOE):** Uste dugu pausuak ematen jarraitu behar dugula eta puntu honetan ere gure aldeko botoa emango dugu.

* **Bolinaga Malabiabarrena jaunak (Bildu):** Honetan ere euskara Teknikari Toniri eta Trebatzaile Ikerri. Eurekin batzartu gara behin baino gehiagotan eta informazioa ematen joan dira planari buruz. Eta ikusten dugu benetan lan handia egin dutela, baina beste alde batetik arrisku bat ikusten diogu, aurreko planari gertatu zitzaiona alegia. Oso polita geratzen da argazki bat ateratzea egunkarian eta esatea Euskara Plan bat daukagula. Baina Plan hori kaxoi batean geratuko daitekeenaren beldurra dugu.

Guk kargua hartu eta urtebetera heltzen zitzaizkigun aktak eta dokumentuak gaztelera hutsez zeuden. Guk ez genituen sinatzen eta aktak, eta horren ondorioz lortu dugu zerbait: orain euskaraz eta gaztelaniaz daude aktak.

Lehen EAJko Bozeramaileak esan duenarekin bat gatzoz: gu ez gaude inor behartzekotan, baina bai ikusten dugu udal batek eredia eman behar duela eta udala eredugarri izan behar da herritarren aurrean nahi badugu herritarrek ere jarrera hori izan dezaten. Esaterako, gaur bertan, udalak hitzarmen bat sinatu du Foru Aldundiarekin, baina hitzarmen hori gaztelera hutsez dago, eta horrek harritu egiten gaitu. Gero, Euskararen Egunean, hor agertuko dira guztiak euskara goraipatzen, baina benetan ikusten duguna da euskarari ez diotela behar duen lekua ematen.

Amaitzeko, daukagun guztia ematen jarraituko dugula esan nahi dut, eta ikusten badugu zerbait ez dela betetzen, salatu egingo dugu, benetan sinesten dugulako plan honetan.

* **5. Alkate ordeak Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV):** Lehenengo argudio berdinarekin jarraituz, aldeko bozka emango diogu, izan ere, erakunde publikoen ardura da baliabideak eta tresnak euskaraz bizi nahi duenaren eskura jartzea. Ez dut uste unea denik nor den euskaldunago eztabaidatzeko, uste dut euskaraz bizi nahi dugu-

* Concejala **Sra. Agorria Martinez PSE-EE (PSOE):** Creemos que debemos seguir dando pasos, y en este punto también votaremos a favor.


* Concejala **Sr. Bolinaga Mallabiabarrena (Bildu):** Vuelvo a dar las gracias al Técnico de euskera Toni y al Trebatzaile Iker. Nos hemos reunido con ellos en más de una ocasión, y nos han ido informando sobre el plan. Y sabemos que han hecho verdaderamente una gran labor. Sin embargo, vemos que existe también el peligro de que le ocurra lo mismo que al plan anterior. Queda muy bonito salir una foto en el periódico diciendo que tenemos un Plan de Euskera. Pero nos tememos que ese plan puede quedarse después guardado en el fondo de un cajón.

A un año de tomar posesión de nuestro cargo, las actas y los documentos que recibíamos solían estar redactados únicamente en castellano. Nosotros no firmábamos las actas, y con ello hemos conseguido que por lo menos ahora, las actas estén tanto en euskera como en castellano.

Estamos de acuerdo con lo que ha dicho antes la Portavoz del PNV: nosotros no obligaremos a nadie, pero vemos que un Ayuntamiento debe predicar con el ejemplo, y, si queremos que la ciudadanía mantenga la misma actitud, el Ayuntamiento debe ser un modelo a seguir. Por ejemplo, hoy mismo, el Ayuntamiento ha firmado un convenio con la Diputación Foral, pero ese convenio está redactado únicamente en castellano, lo cual resulta desconcertante. Después, el Día del Euskera aparecerán todos alabando al euskera, pero lo que vemos en realidad es que no ofrecen al euskera el lugar que le corresponde.

Para finalizar, quisiera añadir que seguiremos trabajando con ahínco, y si vemos que algo no se cumple, lo denunciaremos, porque creemos de verdad en este plan.

* **5ª Tnte. de Alcalde Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV):** Siguiendo con el mismo argumento de mi intervención anterior, votaremos a favor, ya que es responsabilidad de las instituciones públicas poner a disposición de los que quieren vivir en euskera los recursos y los instrumentos necesarios. No creo que sea el momento de discutir quién es el más euskaldún de todos; creo que los que queremos vivir



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

nok, euskara maite dugulako dela, eta horrela egin nahi dugunok gure indarrak batu beharko genituzke euskara sustatzeko eta aurrera egiteko.

Hurrengo puntuan agertuko den hitzarmenaren inguruan esan behar dut hitzarmena Aldundiak berak bidali duela horrela eta jakin dezala Bilduko Bozeramaile jaunak, eskaria eginda dagoela, gutxienez elebitan bidaltzeko agiriak.

* **Bolinaga Mallabiabarrena jaunak (Bildu):** Hitzarmena elebitan eskatuta daukazue, baina uste genuen alderdi euskatzale bat zinetela. Guk, adibidez, euskaraz funtzionatzen dugu. Baina ez hori bakarrik, lotsagarria da esatea, Durango moduko herri baten Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordea gaztelera hutsez egiten dela eta euskaraz bakarrik bi pertsonak egiten dugula, bietako bat neu naizelarik. Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordea, Durango, gaztelera hutsez egitea ez da euskararenganako apustu handi bat.

* **5. Alkate Ordea Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV):** Oso ondo esan duzun guztia: nik ere neure batzordeak euskaraz egiten dugu eta euskaraz egin nahi ez duena ez dut behartzen euskaraz egitera. Bakarrik gogoratzearren, batzuetan bere burua abertzaletzat eta euskalduntzat jotzen dutenek ere dokumentuak, batzorde batzuetan, erdara hutsean aurkeztu dituztela.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaiza hauxe:

- Aldeko botoak: HEMERETZI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 6 Bildu, 3 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Aralar.
- Kontrato botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: BI, 2 Alderdi Popularra.

Hortaz,

en euskera, lo hacemos porque amamos nuestra lengua, y lo que debemos hacer es aunar fuerzas para promover y desarrollar nuestra lengua.

En cuanto al convenio a debatir en el próximo punto, debo decir que ha sido la Diputación quien lo ha mandado así, y que sepa el Portavoz de Bildu que la solicitud ya está realizada, para que los documentos nos sean enviados por lo menos en ambas lenguas.


* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak** (EAJ/PNV): Guk hemen aipatutako zalantza berdinak dauzkagu. Ez dugu ulertzen 2 eta 3 puntuak nola bateratu daitezkeen: kontra egiten diote batak besteari. Guk ere eskaera berdina geneukan, hau da, mozioa bezala ez agertzea gaur hemen eta dagokion batzordean eztabaidatua izan dadila gaia.

- En cuanto al punto dos, nos gustaría que nos aclararan que es lo que entienden por cesión de terrenos, ya que visto el punto tres no hablamos de la totalidad de los terrenos sino de lo que hace referencia exclusivamente al tramo viario. Pero es una interpretación nuestra para que el punto tres tenga algún sentido.


- En cuanto al tres, si ustedes entienden que están comprometidos más de 4 millones de euros es porque aceptan el PERI, que de ahí es de donde vienen esos mas de cuatro millones de euros, tal y como se diseñó en su día, y por tanto no quieren modificarlo, es decir, que no hablaríamos de una modificación en el próximo Plan General de ordenación urbana.

Desde el Partido Socialista no compartimos esa idea. Este proyecto se ha quedado muy obsoleto y no responde a la nueva realidad. Creemos que debemos de partir desde un nuevo planteamiento para esas cinco hectáreas en el centro del pueblo. Es más, desde nuestro punto de vista no cabe hablar de viviendas de lujo y de las cinco torres que se contemplaban.

Nos gustaría que se nos aclararan las dudas y si no es posible pedimos que se retire la moción y que lo discutamos en la comisión que es el foro adecuado. Somos partidarios de trabajar sobre ello, hay que sacar adelante un convenio.

En estos momentos hay muchas prioridades y una de ellas son los tres nuevos accesos que la población está pidiendo hace tiempo. Invitamos a los partidos proponentes de la moción a que la retiren y lo hablemos entre todos los partidos.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra** (EAJ/PNV): Nosotros compartimos las dudas que se han expresado al respecto. No comprendemos cómo pueden enlazarse los puntos 2 y 3, cuando es evidente que se contradicen. Nosotros teníamos la misma petición, es decir, que no fuera presentada hoy como moción para que este tema pudiera ser debatido en la comisión que le corresponde.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

* **Elkoro Zengotitabengoa andreak (Bildu):**

Saiatuko naiz 2. eta 3. puntuak azaltzen. Bigarren puntuan eskatzen dena da gaur egun libre dauden terrenoak lagatzea Durangoko udalari. Hirugarren puntuan eskatzen dena da, gaur egun PERI-Ferrocarril hori onartuta dagoenez, eta ikusirik hitzarmen bat zegoen plusbalia bat ordaintzeko, beraz, aurrera badoa, kopuru hori Durangoko udalari ordaintzea; baina terreno desberdinak dira.

Bestalde bat gatoz Pilar Riosek esandakoarekin, ez gaude ados PERI Ferrocarril honekin, lehengo egoera eta gaur egungoa ez delako berdina. Baina hauxe eskatzen dugu: PERI hori aurrera baldin badoa, dirua ordaindu dakigula.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar):** Lehenengo eta behin gogoratu behar dugu PERI-Ferrocarril onartu zela eta inork ez zuela lotu inongo hitzarmenean zer gertatuko zen den beste 10.000 m²kin. Hor PERI bat dago, Eusko Jaurlaritzari onartu genion PERI horretan luxuzko dorreak egitea, baina inori ez zitzaion bururatu zer gertatzen zen gainontzeko 10.000 m²ekin. Eta hori oraindik lotu barik dago.

Oso garrantzitsua da gogoraraztea Alderdi Popularrak, Alderdi Sozialistak eta Eusko Alderdi Jeltzaleak onartu zutela PERI hori. Momentu honetan PERI ontzat ematen baldin badugu -eta gogoratu behar dut bere momentuan ez Mugarra Bilgunea ez Aralarrek ez genuela onartu PERI hori, ba horixe, PERIa onartu behar bada, kontuan hartu behar dugu 10.000 m² geratzen direla eurekin zer egingo ez dakigula.

Oraindik ez dakigu zer gertatzen den PERI horren ondorioz sortutako gainbalioekin, lau milioi baino gehiagoko gainbalioa, alegia. Momentu honetan beste alderdi batzuk prest badaude PERI hori zalantzan jartzeko, nahiz eta gogoratu behar dudan behin-betiko onartuta dagoela eta eskubide urbanistiko batzuk sortu direla bertan, Aralarren aldetik ez da inongo arazorik PERI hori bere osotasunean berraztertzeko, eta hala egiten bada ez dauka zentzurik inori gainbalio batzuk eskatzea, baina horretarako onartu egin beharko litzateke.

Beraz, gustatuko litzazuke jakitea gobernu taldeak Eusko Jaurlaritzarekin negoziatzera doanean PERI hori ontzat ematen duen ala ez, edo berraztertzeko

* Concejala **Sra. Elkoro Zengotitabengoa**

(Bildu): Intentaré explicar los puntos 2 y 3. En el punto 2 se solicita que se cedan los terrenos que actualmente están libres al Ayuntamiento de Durango. Como hoy en día el PERI-Ferrocarril está ya aprobado, y visto que había un acuerdo para pagar una plusvalía, lo que se pide en el punto 3 es que, si sigue adelante, el Ayuntamiento de Durango cobre esa suma; pero los terrenos, en sí, son diferentes.


Por otro lado, coincidimos con lo que ha mencionado Pilar Ríos; no estamos de acuerdo con ese PERI-Ferrocarril, porque la situación de aquella época y la actual son ciertamente diferentes. Pero lo que solicitamos es que si ese PERI sigue en marcha, cobremos la cantidad que nos corresponde.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar):** En primer lugar, quiero recordar que cuando se aprobó el PERI-Ferrocarril, nadie concretó en ningún convenio lo que sucedería con los otros 10.000 m². Sí, existe un PERI, a través del cual aprobamos que el Gobierno Vasco construyera torres de lujo, pero a nadie se le ocurrió preguntarse qué sucedería con los restantes 10.000 m². Y eso sigue, hoy por hoy, sin concretarse.

Es importante recordar que ese PERI fue aprobado por el Partido Popular, el Partido Socialista, y el Partido Nacionalista Vasco. Si en este momento damos por bueno el PERI –y he de recordar que en su momento ni Mugarra Bilgunea ni Aralar lo aprobamos–, si tenemos que aceptar el PERI, debemos tener en cuenta que aún quedan 10.000 m², con los cuales no sabemos qué se va a hacer.

Todavía no sabemos qué sucederá con las plusvalías derivadas de ese PERI, unas plusvalías que superan los 4 millones. Si en este momento otros grupos están dispuestos a poner en duda ese PERI, aunque debo recordar que está aprobado definitivamente y ya se han producido ciertos derechos urbanísticos en ese terreno, Aralar no pondrá ninguna objeción para revisar por completo dicho PERI, y si es así, no tiene ningún sentido reclamar las plusvalías; pero para ello, primero debería de aceptarse.

Por tanto, nos gustaría saber si en la negociación del Equipo de Gobierno con el Gobierno Vasco se da por bueno ese PERI, o si



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

prest egongo den Alderdi Sozialistak esan duen bezala. Ontzat ematen baldin badu lau puntu hauek zentzu guztia daukate. Guk uste dugu beharrezkoa dela bere osotasunean aztertzea eta hori bada Eusko Alderdi Jeltzalearen jarrera, ez daukagu inolako arazorik dagokion batzordean PERI hori bere osotasunean berraztertzeko.

* **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP):** Ñabardura bat baino ez, Dani Maezturi zuzenduta. Dorreei buruz ari denean, ez dira 17, behea eta 18 baizik; dena dela, argitu nahi dut Alderdi Popularrak ez zuela alde bozkatu.

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE):** Hemen esan denaren arabera, ulertzen dugunez, mozioaren zati batzuk usteetan oinarritzen dira.

Bestetik, libre geratu den 10.000 m²-ko lursailaz mintzatu da Aralar, baina bitxia bada ere, mozioan ez da halakorik aipatzen. Eta garrantzitsuena: gaurdaino, oraindik ez daukagu inolako hitzarmenik Udal honen eta Eusko Jaurlaritzaren artean.

Nabarmendu nahi dugu, gure ustez, Durangoren gaur egungo errealitatea proiektua egin zenekoaz guztiz bestelakoa dela, eta argi dugu aldaketaren bat egin behar dela. Plan Nagusiak horretarako aukera ematen digula uste dugu, baina edonola ere, kontu hau guztion artean hitz egin behar dugu; guztion artean landu behar dugu.

Egia esan, ez diogu mozioari inolako zentzurik ikusten. Dena dela, oinezkoentzako hiru pasabideak premiazkotzat jotzen ditugu: Durango zatituta dago oraindik, eta horrek konponbide erraza dauka. Beste behin eskatu nahi diegu mozioa aurkeztu duten bi alderdiei erretira dezatela.

* **5. Alkate Ordea Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV):** EAJren erronka beti izan da lanari ekitea terreno horien inguruan, bai aurreko legealdian aurreko gobernuarekin eta baita gaur egun dagoen gobernu taldearekin ere. Orain dela gutxi Alkate andreak konpromisoa hartu zuen gobernu berriarekin harremanetan jartzeko, lanean jarraitzeko.

está dispuesto a revisarlo, tal y como ha expresado el Partido Socialista. Si lo da por bueno, estos cuatro puntos son completamente pertinentes. En nuestra opinión, es necesario revisar el PERI íntegramente, y si el Partido Nacionalista Vasco comparte esta postura, no tenemos ningún problema en revisarlo en su totalidad en la comisión que le corresponda.

* **Concejal Sr. Gastañazatorre Urizar (PP):** Solamente un matiz dirigiéndome a Dani Maeztu. Cuando hace referencia a las torres, no son 17 sino bajo más 18, pero lo que más quiero clarificar es que el Partido Popular no votó a favor.


* **Concejala Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE):** Después de lo que se ha dicho aquí entendemos que hay partes de la moción que están basadas en suposiciones.

En segundo lugar, Aralar nos habla de los 10.000 m² que quedan libres pero curiosamente en la moción no se hace alusión a ellos. Y lo más importante de todo, a día de hoy seguimos sin ningún convenio entre este Ayuntamiento y Gobierno Vasco.

Insistimos que, desde nuestro punto de vista, la realidad de Durango es completamente diferente a la fecha en la que se hizo este proyecto y tenemos claro que se tiene que dar una modificación. Creemos que el Plan General nos ofrece una oportunidad pero, en cualquier caso, esto lo tenemos que hablar entre todos y todas, tenemos que trabajar en ello.

Sinceramente no le vemos ningún sentido a la moción y sin embargo sí vemos urgencia en los tres pasos para los peatones: Durango sigue dividida y eso tiene fácil solución. Insistimos en proponer a los dos partidos proponentes de la moción que la retiren.

* **5ª Tnte. de Alcalde Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV):** El PNV siempre ha incluido entre en sus objetivos la actuación en estos terrenos; era uno de sus objetivos en la legislación anterior, con el gobierno anterior, y lo es como Equipo de Gobierno hoy en día. Hace poco, la señora Alcadesa se comprometió a ponerse en contacto con el gobierno actual, para continuar trabajando en este asunto.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Eta mozioari dagokionez, lehen esan duguna, kontraesanak daudela eta kontraesan horiekin ezin diogula gure aldeko bozka eman.

* **Elkoro Zengotitabengoa andreak (Bildu):** Gu bat gatz Aralarrek esandakoarekin. Prest gaude PERI Ferrocarril hori berraztertzen bada bigarren eta hirugarren puntuak berriro eztabaidatzeko Hirigintza batzordean.

Guk hau proposatu dugu pentsatzen genuelako onartuta zegoela, baina denok prest bagaude PERI hori berraztertzeke ez dago inolako arazorik 2. eta 3. puntuak mozio honetatik kentzeko. Beste puntuak uste dut mantendu daitezkeela, batez ere ikerketa bat eskatzea Eusko Treneri ea lurzoru hori zelan dagoen eta neurriak hartzeko; 4. puntua ere mantenduko genuke, badakigulako Udal Gobernuak elkarriketak daukela Eusko Trenekin eta guk, behintzat, ez dakigu zeri buruz zabiltzaten berbetan.

Alkate andreak dio ez daudela hitz egiten baina gaur heldu zait aurreko plenoan egindako galderari erantzuna eta irakurriko dizuet. Nik hauxe galdetu nuen: "zer pasatuko da trenaren lurperatzeak libre utziko dituen terrenoekin?" Eta udal gobernuaren erantzuna izan da "Lurzoru horiek ez dira udalarenak Eusko Jaurlaritzarenak baizik. Eusko Jaurlaritzako Garraio sailarekin irekita daude elkarriketak". Beraz elkarriketak irekita badaude uste dut jakin ahal dugula zeri buruz ari zareten berbetan. Guk informazio hori eduki nahi dugu eta gure iritzia eman.

Nik uste dut, ez baduzue txarto ikusten, 2. eta 3. puntuak kendu egin ditzakegula PERIa berraztertzen bada eta 1. eta 4. puntuak mantendu egingo ditugu.

* **Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV):** Ez dakit zelan bozkatuko dugun. Baldintzatu egiten da 2. eta 3. puntuak alde batera uztea PERIa zabaltze horrekin. Ni horrekin ezin naiz konprometitu talde guztien gauza bat delako, mahaigaineratu bai baina gehiago ezin dut egin. Beste gauza bat argitu nahi dut, hau da,

Y en cuanto a la moción, insistimos en lo mismo que antes; algunos puntos se contradicen, y no podemos votar a favor de un texto con tales contradicciones.


* **Concejala Sra. Elkoro Zengotitabengoa (Bildu):** Nosotros estamos de acuerdo con lo que ha expresado Aralar. Estamos dispuestos a volver a debatir los puntos 2 y 3 en la Comisión de Urbanismo, si se revisa ese PERI-Ferrocarril.

Hemos planteado esta moción, porque creíamos que el PERI ya estaba aprobado, pero si todos estamos de acuerdo en revisar ese PERI, no hay ningún problema en retirar los puntos 2 y 3 de esta moción. Creo que se pueden conservar los otros puntos, sobre todo el referente a instar a Eusko Tren a que analice esos suelos y a que tome las medidas pertinentes; también mantendríamos el punto 4, porque sabemos que el Equipo de Gobierno municipal está manteniendo conversaciones con Eusko Tren, y nosotros, por lo menos, no sabemos de qué tratan esas conversaciones.

La señora Alcaldesa niega esas conversaciones, pero hoy me ha llegado la respuesta a la pregunta que planteé en el pleno anterior, y os la voy a leer. Yo preguntaba qué sucederá con los terrenos que queden libres tras soterrar el tren Y la respuesta del Equipo de Gobierno municipal ha sido que esos terrenos no son propiedad municipal, si no del Gobierno Vasco, y que ya se están entablando conversaciones con el Departamento de Transportes del Gobierno Vasco. Por tanto, si esas conversaciones están en marcha, creo que deberíamos saber de qué se está hablando. Nosotros queremos conocer esa información, y dar nuestra opinión al respecto.

En mi opinión, si os parece bien, si se acuerda la revisión del PERI, podemos retirar los puntos 2 y 3, manteniendo los puntos 1 y 4.

* **Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV):** No sé cómo podremos votar eso. Se condiciona el retirar los puntos 2 y 3 a la revisión del PERI. Pero yo no puedo comprometerme a eso, porque se trata de un asunto de todos los grupos; yo puedo presentarlo a debate, pero nada más. Me gustaría, asimismo, aclarar otra cosa, puesto que no ha habido conversaciones,



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

elkarrizketarik ez dela egon, bidea irekita dagoela bakarrik. Zuek nahi baduzue 1. eta 4. puntuak batera bozkatu horrela egingo da. Beraz puntu biak irakurriko ditut eta gero bozketara pasatuko gara:

1. Udal honek, euskotrenari eskatzen dio Durangon duen instalazioa behin betiko uztean, lurzoruaren gaineko ikerketa bat egitea. Ikerketa honek emandako emaitzetan oinarrituta hartu beharreko neurriak hartuko ditu Euskotrenek, beti ere 1/2005 Legea kontutan hartuta.

4. Durangoko Udalaren gobernuak, Eusko Jaurlaritzarekin gaien honen inguruan edozein akordioa lortze aldera udaleko gainontzeko udal talde politikoekin bere jarrera adostuko du.”

- Aldeko Botoak: HEMERETZI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 6 Bildu, 3 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Aralar.
- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: BI, 2 Alderdi Popularra.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoekin, goian zehazturiko mozioaren 1. eta 4. puntuak **ONARTU EGITEN DITU**.

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Atzo Bozeramaleen Batzordean komentatu genuenez, gai-ordenatik kanpo bi puntu dauzkagu, alde batetik mozio bat. Mozioan sartu baino lehen, lehenengo, urgentzia bera bozkatu beharra dago. Atzo azaldu nuen Bozeramaleen Batzordean zein zen edukia eta zergatik datorren urgentzia hori. Alde batetik, gaiari helduta, horixe eskatu digutela azken egunotan bai Euskal Fondoatik eta baita Frente Polisarioaren Euskadiko delegazioko arduradunak, eta bestetik Sahara errepublikaren

sólo se ha abierto una vía de diálogo. Si deseáis que los puntos 1 y 4 se voten conjuntamente, así lo haremos. Por tanto, leeré ambos puntos, y después pasaremos a la votación:

1. Este Ayuntamiento, solicita a Euskotren que, una vez termine su actividad en los terrenos de Durango, realice un estudio de estado del terreno. En función de los resultados obtenidos en este estudio, Euskotren tomará las medidas necesarias, siempre teniendo en cuenta la Ley 1/2005.


4. Que todos los acuerdos que se vayan a alcanzar entre el Equipo de Gobierno del Ayuntamiento de Durango y el Gobierno Vasco, sean previamente acordados con el resto de grupos políticos representados en este Ayuntamiento.”

- Votos a favor: DIECINUEVE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 6 de Bildu, 3 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 de Aralar.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: DOS, del Partido Popular.

En su vista,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** los puntos 1 y 4 de la Moción anteriormente transcrita.

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): Tal y como comentamos ayer en la Comisión de Portavoces, tenemos dos puntos fuera del orden del día. Por un lado una moción. Antes de comenzar a debatirla, en primer lugar, debemos votar su urgencia. Ayer expuse en la Comisión de Portavoces cuál es su contenido, y a qué se debe tanta urgencia. Por un lado, en cuanto al tema que nos ocupa, así nos lo han pedido tanto el Fondo Vasco y como el responsable de la Delegación de Euskadi del Frente Polisario; y por otro lado, mañana se cumplen



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

aldarrikapenetik 37 urte betetzen direlako bihar bertan. Beraz, zuzenean, urgentzia bozkatuko dugu

Ahobatez, gai-zerrendan sartu ahal izateko **urjentzia onartu egiten da.**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Beraz, orain zuzenean mozioa irakurriko dut:

"MAROKOKO TRIBUNAL MILITARRAK HARTUKO ERABAKIEN AURKAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Aurreikusita zegoen moduan, 2013ko otsailaren 17an, igande gauerdian, Marokoko tribunal militarrek sententzia gogorak eman zituen Gdeim Izik-eko 24 sahararren aurka.

Iragarritako sententzia baten kronika, alegia. Epaiketa-itxurakoa izan zen.

Halaxe, nazioarteko behatzaile gehienek eta giza eskubideen aldeko Marokoko elkarteak jakinarazi dutenaren arabera, ez dira bidezko epaiketa batek exijitzen dituen arau oinarrikoenak errespetatu: Agintari militarrek aginpidetik ez dute pertsona zibilak juzkatzeko, are gehiago indarrez okupaturiko lurralde bateko pertsonak direnean (Ginebrako hitzarmena, 1949). Ondorioz, 24 sahararrei beste garai batzuetako diktadura erregimenetan ohikoak izaten ziren zigor gogorak ezarri zitzaizkien.

Giza eskubideen defendatzaileen aurkako bi-degabekeria honen aurrean behar beharrezkoa irizten diogu sahararren kausaren aldeko da elkartasun-mugimenduek parte hartzeari. Fartsa hau salatu beharra dago Marokoko agintarien aurrean, nazioarteko organo eskumenduen aurrean eta alderdi politiko eta gobernuen aurrean.

37 años desde que se proclamara la República Árabe Saharaui Democrática. Por tanto, votaremos directamente la urgencia.

Por unanimidad, se **aprueba la urgencia** de su inclusión en el orden del día de la presente sesión.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Así pues, leeré a continuación la moción:


"DECLARACIÓN INSTITUCIONAL EN CONTRA DE LAS SENTENCIAS DICTADAS POR EL TRIBUNAL MILITAR MARROQUÍ

Como era previsible, en la madrugada del Domingo 17 de febrero 2013, el tribunal Militar Marroquí, dictó sentencias de una severidad inusitada contra los 24 civiles saharauis de Gdeim Izik.

Se trata, como lo han indicado todos preparativos, de una crónica de una sentencia anunciada.

En un simulacro de juicio, que en opinión de la mayoría de observadores internacionales y de la Asociación Marroquí de DD.HH, no se han respetado las normas más elementales que caracterizan todo juicio justo, las autoridades castrenses, incompetentes para juzgar a personas civiles, máxime tratándose de personas pertenecientes a un territorio ocupado por la fuerza (Convenio de Ginebra de 1949), los 24 saharauis fueron condenados, a penas severas propias de régimen dictatorial de otros tiempos.

Ante esta nueva manifestación de injusticia contra defensores de DD.HH, se hace precisa la intervención de todo el Movimiento Solidario con la causa saharauí para denunciar esta farsa, ante las autoridades del País, a los órganos internacionales competentes, a los partidos políticos y a los Gobiernos.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Esperientziak erakutsi digu estatuz kanpoko presioek baliabide ezin hobeak direla Marokok Saharako lurralde okupatuetan ezarri nahi duen basakeriari aurre egiteko.

Honegatik guztiagatik, Durangoko osoko bilkurak:

- 1. Bere gaitzespena erakutsi nahi du Marokoko erregimenak abian jarri dituen kartzelaratzeko, tratatu txar eta kartzela-zigorrenatik, prozesu guztia legez kontrakoa eta giza duintasunaren eta Herri baten eskubideen kontrakoak direlako.*
- 2. Bere elkartasuna adierazi nahi die presoiei, familiartekoei eta Saharako Herriari jasaten ari diren oinaze eta bidegabekeriarengatik.*
- 3. Marokoko agintariei eskatzen die epaiketa baliogabetu dezatela, izan ere, salbuespeneko tribunal batek, Nazio Batuko segurtasun kontseiluaren ebazpenen arabera, aginpiderik ez duelako eta lurraldez kanpoko delako holakoak ebazteko, eta epaiketak berme legal eta zuzenbidekoiei muzin egin dielako.*
- 4. Gobernu zentralari eskatzen dio egin beharreko gestioak egin ditzala Marokoko erresumak epaiketa baliogabetu dezan. Hala ere, Marokoko gobernuari eskatu diezaiozaten Saharako Herriaren eskubideak aitortu ditzala.*
- 5. Saharako bandera jarriko du Udaletxeko balkoian epaiketa bidegabe honetan zigortutakoiei eta Saharako Herri osoari elkartasuna adierazteko."*


EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

La experiencia ha demostrado que las presiones que se ejercen desde el Exterior constituyen el único recurso eficaz capaz de hacer ceder la brutalidad con que Marruecos quiere imponer su presencia en los territorios saharauis ocupados.

Por todo ello, el Pleno del Ayuntamiento de Durango:

- 1. Quiere mostrar su repulsa por el encarcelamiento, el trato inhumano y las condenas que el Régimen Marroquí lleva a cabo, calificando todo este proceso ilegal y contrario a la dignidad humana y a los Derechos de un Pueblo.*
- 2. Quiere mostrar su solidaridad y apoyo a los presos, familiares y al Pueblo Saharaui por el sufrimiento y la barbarie que padecen.*
- 3. Exige a las autoridades marroquíes la nulidad del juicio, entre otros aspectos, por tratarse de un proceso llevado a cabo por un Tribunal incompetente por tratarse de un Tribunal de excepción, además de extraterritorial, a la luz de las Resoluciones del Consejo de Seguridad de Naciones Unidas, y por la ausencia de garantías de un proceso legal y justo.*
- 4. Reclama del Gobierno Central las presiones oportunas al Reino de Marruecos para que declaren la nulidad del juicio. Asimismo, procedan a exigir del Gobierno marroquí el reconocimiento de los Derechos del Pueblo Saharaui.*
- 5. Colocará la Bandera Saharaui en el balcón del Ayuntamiento en solidaridad con los condenados en este juicio injusto y con todo el Pueblo Saharaui."*

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Aldeko bozka iragartzen dugu. Tamalez askotan eztabaidatu dugu gai honetaz eta guk mozio honetan esaten den guztia konpartitzen dugu baina egia da gustatuko litzaigukeela konpartitzea hemen ez dauden hainbat gauza, adibidez, ezin dugu ahaztu momentu desberdinetan Espainian gobernuan egon diren gobernu desberdinek Saharako auzian duten erantzukizuna eta ezin dugu ahaztu Alderdi popullarrak eta Alderdi Sozialistak nolako erantzukizuna duten Saharako egoera honetan.

Ezin dugu ahaztu zergatik oraindik ematen den Saharako lurraldeen gainean okupazio bat eta zergatik onartzen duen Espainiak. Halaber, ez dugu ulertzen zein nolako interes ekonomikoak dituen arrantza kaladeroak bertan daudelako eta bertan daudelako baita ere fosfato harrobiak. Hor dauden interes ekonomiko zehatz batzuk direla eta, nahiago izan dute Marokorekin harreman on bat izan eta Sahararen auzia alde batera utzi. Uste dut ezin dugula Sahararen inguruko mozio bat onartu aipamen horiek egin gabe.

Bestalde, 5. puntuak eskatzen du Sahararen bandera ipintzea udaletxean eta honen inguruan aspalditik geneukan proposamen bat: kontutuan izanik anaitze hitzarmen bat daukagula Saharako Dora dairarekin, ondo legoke gure herriko sarreretan anaitze hori gogoratzen duen plaka bat ezartzea eta Saharako bandera plaka horretan jasota geratzea. Ez dakit posible den mozio horretan sartzea, bestela beste momentu batean egingo dugu proposamen hau.

* **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP)**: Alde bozkatuko dugula aurreratu nahi dut.

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Ados gaude mozioan aurkeztu diren bost puntuekin; baina ondo ikusten dugu Aralarreko ordezkariak egin duen ekarpena onartzea. Mozio hau atzo entregatu zuten Bozeramaileen Bilkuran, eta ez dugu uste premia hori justifikatuta dagoenik, baina tira, badakigunez zein den horretarako arrazoia, alde agertuko gara. Atzo planteatu genuen adierazpen instituzionala izan zedila, figura horrek argi uzten baitu alderdi guztiek aho batez adostu dutela.


* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Anuncio nuestro voto a favor. Por desgracia, se ha debatido en numerosas ocasiones sobre el tema, y nosotros compartimos todo lo que recoge la moción; pero es verdad que nos gustaría compartir otros muchos temas que no se recogen, como por ejemplo, que no podemos olvidar la responsabilidad que tienen en la situación del Sahara los diversos gobiernos que han presidido España en las diferentes épocas, y tampoco podemos olvidar la responsabilidad que tienen el Partido Popular y el Partido Socialista en este asunto.

No podemos olvidar por sigue la ocupación de los territorios saharauis, y por qué el Estado español lo consiente. Asimismo, no comprendemos qué interés económico puede tener en los caladeros de pesca que allí se encuentran, porque también se encuentran allí las canteras de fosfato. Prefieren mantener una buena relación con Marruecos y obviar el caso del Sahara, por meros intereses económicos. En nuestra opinión, no se puede aprobar una moción sobre el Sahara sin hacer también referencia a ello.

Por otra parte, en el punto 5 se solicita colocar la bandera del Sahara en el Consistorio, y nosotros tenemos una propuesta al respecto desde hace tiempo: teniendo en cuenta que tenemos un acuerdo de hermanamiento con el pueblo del Sahara de la daira Dora, consideramos adecuado instalar placas que recuerden ese hermanamiento en las entradas de nuestro municipio, y que la bandera aparezca en esas placas. No sé si es posible incluir esta petición en la moción; si no es así, lo plantearemos en otro momento.

* Concejal **Sr. Gastañazatorre Urizar (PP)**: Adelantamos nuestro voto a favor.

* Concejala **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Estamos de acuerdo con los cinco puntos que se plantean en la moción; también vemos bien que se incluyera la aportación que ha hecho el representante de Aralar. Esta moción se entregó ayer en la Junta de Portavoces, y la urgencia no la vemos justificada pero como el motivo es el que es, la vamos a apoyar. Nuestro planteamiento ayer fue que tuviera la figura de declaración institucional porque consideramos que esa figura transmite claramente el acuerdo unánime de todos los partidos.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

* **Bolinaga Mallabiabarrena jaunak (Bildu):** Guztiz ados gaude mozioan jartzen duenarekin. Guk ere deklarazio instituzional bat gura genuen, baina ikusten dugu bertan agertzen diren hainbat puntu lotura estura dutela Euskal Herriarekin, euskal herritarrek gauza bera bizi izan dutelako: 30 urteko kondenak, Parot dotrina, Gorka Lupiañez durangarrak jasandako –goraintziak hemendik–,...

Baina mozioarekin hasiko naiz. Jartzen du “Nazioarteko behatzaile gehienek eta Giza eskubideen aldeko Marokoko elkarteak jakinarazi dutenaren arabera ez dira bidezko epaiketa batek exijitzen dituen arau oinarritzkoenak errespetatu”. Hemen Amnistia Internacional-el urte asko darama esaten Espainiaren jarrera bai atxilotetetan, bai espetxe politikan, oso basatia ez, ilegala dela, eta Estrasburgok ere gauza bera esan du: espetxe politika ilegala dela. Hori hemen gertatzen da, Durangoko herritarrei gertatu zaie. Jarraitzen dut, “Indarrez okupaturiko lurralde bateko pertsonak direnean”.

Guk hemen, Motorretan, Guardia Zibilaren kuartel bat daukagu; mozio bat dago sartuta eta horren arabera argi uzten da beraiek ez daukatela kompetentziarik, beraz, hori okupazio bat da, Espainiar polizia bat, beldurra ematen diguna herritar askori. Pertsona horiek ez daude hor herritarrek nahi dutelako, okupatzen ari dira, eta jende askok nahi ez dugun bandera bat defendatzen dute.

Beste bat “Diktadura erregimenetan ohikoak izan ziren zigor gogorrak ezarri zitzaizkien”. Hemen etortzen zait gogora Gorka Fraile durangarra, 30 urtetik gorako kondena bat daukana; zoritxarrez lege kuota maximoa 30 urtekoa denez hori da beteko duena, eta hemen ari gara hitz egiten 25 urteko zigor-kartzelaz. Guztiz ados nago, diktadura erregimen garaikoak dira eta zigor oso gogorrak eta basatiak dira, baina hemen ere badaukagu.

Gero esan duzue “bizi arteko kondena”; eta hemen Parot dotrinarekin berdina gertatzen da, eta orain kontatuko dizuedana da pertsona honen atxiloteta nola joan zen; horrela esaten du, abisatzen dut, apur bat gogorra da:


* Concejál **Sr. Bolinaga Mallabiabarrena (Bildu):** Estamos totalmente de acuerdo con lo recogido en la moción. Nosotros también queríamos una declaración institucional, pero vemos que muchos puntos incluidos en el texto tienen lazos muy estrechos con Euskal Herria, ya que el pueblo vasco ha padecido lo mismo: condenas de 30 años, la doctrina Parot, lo sufrido por el durangués Gorka Lupiañez, a quien le mando un saludo desde aquí...

Pero me remitiré a la moción. La moción dice: “Según han dado a conocer numerosos observadores internacionales y la Asociación Marroquí a favor de los Derechos Humanos no se han respetado los mínimos exigibles en un juicio justo”. Aquí Amnistía Internacional lleva muchos años señalando que la actitud de España en las detenciones, en la política penitenciaria, no sólo es incivilizada, sino que es ilegal, y Estrasburgo también se ha manifestado en este mismo sentido: la política penitenciaria es ilegal. Eso sucede aquí, lo han padecido vecinos de Durango. Y continúo: “cuando se trata de personas de un territorio ocupado a la fuerza”.

Nosotros aquí, en Montorretas, tenemos un cuartel de la Guardia Civil; se ha presentado una moción, en la cual queda claro que ese cuerpo policial no tiene aquí ninguna competencia; por tanto, supone una ocupación, una policía española la cual aterra a gran parte de la ciudadanía. Esas personas no están ahí a petición de la ciudadanía; están ocupando y defienden una bandera que muchos de nosotros rechazamos.

Otra: “se les aplicaron penas muy duras, propias de los regímenes dictatoriales”. Esto me ha recordado al durangués Gorka Fraile, quien tiene una condena superior a 30 años; lamentablemente, como la cuota máxima legal es de 30 años, es ése periodo el que cumplirá, y estamos hablando sobre una pena de prisión de 25 años. Estoy totalmente de acuerdo; se tratan de penas propias de la época del régimen dictatorial; son penas duras y atroces, que aquí también las padecemos.

Luego habéis mencionado lo de “la condena de por vida”, y aquí ocurre lo mismo con la doctrina Parot, y ahora os contaré cómo fue la detención de esta persona. Dice así –y aviso de que es muy duro–:



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

“Atxilotu egin ninduten; lurrera bota ninduten, eta eskuak lotu zizkidaten bizkarrean; ostiko ugari eman zizkidaten. Batek besteei esaten zien ni aske uzteko, hala ihes egin nazan eta bi baten kontra egin ahal izan zezaten, Cabretongo gertaerari erreferentzia eginez. Behin Bilboko La Salve kuartelean, gela batean sartu ninduten, eta jipoi ederra eman zidaten, kolpeak, barrabiletan batez ere. Gai askori buruzko galderak egin zizkidaten, eta izenak eskatzen zizkidaten behin eta berriz oihuka eta golpeka; haietako batek pistola muntatu zuen, eta buruan ipini zidan.

Madrilera bidean, autoan, ezkerrekoak txilio egiten zidan, eta ahurra zabaldua zuela, jo egiten ninduen; eskuinekoak plastikozko poltsa bat jarri zidan buruan, eta lantzean-lantzean eskuekin itxi egiten zuen, eta asfixia eragiten zidan. Haietako bat Espainiako Konstituzioaren eguna ospatzen egon zen, eta mozkortuta zegoen; esan zidan inork ez zekiela atxilotuta nengoenik, eta tiro bat eman ahal zidala. Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusia iritsi bezain laster, gela batera eraman ninduten; biluztu egin ninduten, eta aurpegian mozturro bat ipini zidaten, eta jantzita eduki nuen epaitegira eraman ninduten arte.

Egun eta erdian, milaka flexio egitera behartu ninduten, eta era berean, burua kolpatzen zidaten telefono-aurkibide baten antzeko zerbaitekin edota gomazko edo antzeko material batezko borrarakin. Golpeak ematerakoan, argitxoak ikusten nituen; poltsa bat buruan ipini eta bertan tabakoaren kea sartzen zidaten, eta itxi egiten zuten asfixia eragiten zidaten arte. Galdeketa etengabeak ziren, han egon nintzen denboran, apenas egon nintzen ziegan; azken egunean ordu batzuk baino ez. Une batzuetan koherentziarik gabeko erantzunak ematen nizkien. Aire faltagatik-edo izango zen.


Lehenengo 36 ordu horietan tolestutako manta bat ere ipintzen zidaten gainean, eta haren bitartez ukabildak ematen zizkidaten. Lehendik esandakoez gain, bainu-ontziarena ere aplikatu zidaten. Aparrezko koltxoi batean lotu ninduten, eta burua ur izoztutan sartu zidaten; ondoren, beraiek *agua-park* deitzen zutena egiten hasi zitzaizkidan; israeldarrek irakatsi zietela esan zuten; eta honetan zetzan: koltxoi batean etzan eta hankak, eskuak eta burua heltzen zizkidaten; eta ondoren ura botatzen zidaten mahuka baten bidez, ahoan edo

“Me detuvieron, me tiraron al suelo y me ataron las manos a la espalda, me dieron muchas patadas. Uno decía a los otros que me soltasen para que huyera y poder hacer dos a uno con referencia a Cabreton. Una vez trasladados al cuartel de La Salve en Bilbao me metieron en un cuarto, me dieron una paliza, sobre todo golpes en los testículos. Me empezaron hacer preguntas sobre muchos temas pidiéndome nombres entre continuos gritos y golpes; uno de ellos montó la pistola y me la puso en la cabeza.

En un coche rumbo a Madrid el de mi izquierda me chillaba y golpeaba con la mano abierta, el de la derecha me puso una bolsa de plástico en la cabeza, cada rato me la cerraba con las manos y me probocaba asfixia. Uno de ellos, que había estado celebrando el día de la Constitución y estaba borracho me dijo que nadie sabía que estaba detenido y que me podía pegar un tiro. Nada más llegar a la Dirección General de la Guardia Civil me llevaron a un cuarto, me desnudaron y me pusieron un antifaz con el que estuve hasta ser trasladado al juzgado.

En día y medio me habían obligado a realizar miles de flexiones y a la vez me golpeaban la cabeza con algo que podría ser un listín o una porra de algún material como goma. Con lo golpes veía como luces, me ponían una bolsa en la cabeza y me metían dentro de ella humo de tabaco, me la cerraban hasta probocarme asfixia. Los interrogatorios eran continuos, casi no pisé el calabozo el tiempo que estuve allí salvo unas horas el último día. Había momentos en los que contestaba a las preguntas con cosas incoherentes. Pienso que era por falta de aire.

Tras esas primeras 36 horas en las que también me colocaban una manta doblada sobre el cuerpo y me daban puñetazos a través de ella. Comenzaron a aplicarme la bañera además de las cosas que ya me venían haciendo. Me ataron en un colchón de espuma y me metieron la cabeza en el agua helada, luego empezaron a hacerme lo que ellos llamaban aguapark; decían que se lo habían enseñado los israelíes; consistía en que me tumbaban en un colchón, me sujetaban los pies, los brazos y la cabeza y me echaban agua con una manguera en la boca y



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

sudurrean. Ezin nionean gehiago eutsi, ur balde bat botatzen zidaten aurpegian, eta ito egiten nintzen.

Biluzik nengoen, beso-zabalik egotera derrigortzen ninduten, ur hotzeko baldeak botatzen zizkidaten gainetik, eta dardarka nengoenez, aingeru urduria nintzela esaten zidaten. Bigarren egunaren erdialdea-edo izango zen, gutxi gorabehera, *aguaparka* eta aingeru urduria egin zizkidatenean. Lau-hanketan jarri ninduten lurrian, eta uzkitik makila bat sartzen saiatu ziren, baina ezin zutenez, lurrian etzan ninduten buruz gora, hankak altxatu zizkidaten, eta jarrera horretan, makila sartu egin zidaten.. Eta ez dut gehiago jarraituko.

Hau Durangon gertatu da, Durangoko herritarrei gertatzen zaie eta, hemen jartzen duen bezala, fartsa hau salatu beharra dago: guztiz ados; Maroko egiten ari dena herri horretan salatu beharra dago eta fartsa handi bat da, baina Euskal Herriko fartsa ere salatu egin behar da, eta hemen ere baditugu nazio organoei kasurik egin eza, gogoratu bestela Aieteko Kofi Annan eta gainerakoak laguntza eta jarraibideak ematera etorri zirela gurera. Ez diezue kasurik egin eta ez da inongo intentziorik ez esfortzurik egin. Sahararren aldeko esfortzua bai, bidezkoa da, baina mesedez, hasi zuen herritarrengandik, hauek ere gauza bera jasan dutelako eta jasaten ari direlako egunero.

* **Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAK/PNV):** Testimonioari duintasuna emateko luzatu egin dut zure parte-hartzea, eta bost minutu gehiago eman dizkizut, beraz, eskertuko nizuke hori kontuan hartzea.

* **5. Alkate Ordea Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV):** Lehendabizi esan behar dugu ondo ikusten dugula gure aldetik ere Aralarrek egindako proposamena, eta gure aldeko bozka emango diogula.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar):** Urdaspalek esan-dakoaren harira, bai ikusten dugu mozio honetan, eta askotan gertatzen zaigu beste herri batzuetako auzien inguruan, aho batez onartzen direla tankera honetako adierazpenak eta kasu honetan Maroko jartzen duen lekuan Espainia jarri daitekeela eta Sahara jartzen duen lekuan Euskal Herria jarri dai-

en la nariz. Cuando ya no podía aguantar me tiraban un balde de agua a la cara y me ahogaba.


Estaba desnudo, me obligaban a ponerme con los brazos abiertos, me tiraban baldes de agua muy fría por encima, como temblaba me decían que era el ángel nervioso. Aproximadamente cuando sería el segundo día y medio entraron a hacerme el aguapark y el ángel nervioso. Me pusieron a cuatro patas en el suelo y trataron de meterme un palo por el culo, como no pudieron hacerlo me tumbaron en el suelo boca arriba, me levantaron las piernas y, en esa posición, me metieron el palo". Y no proseguiré.

Esto ha sucedido en Durango, lo han padecido vecinos durangueses, y como dice aquí, debe denunciarse esta farsa: totalmente de acuerdo; debemos denunciar lo que está haciendo Marruecos con este pueblo; se trata de una gran farsa; pero también debemos denunciar la farsa que sufre nuestro país, donde también se hace caso omiso a los órganos internacionales; recordemos sino la ayuda y las pautas que vinieron a ofrecernos Kofi Annan y los demás asistentes a la conferencia de Aiete, a los que se ha ninguneado; no se ha demostrado ni la mínima intención; no se ha hecho ni el mínimo esfuerzo. Es justo esforzarnos por el Sahara, claro está; pero deberíais empezar por vuestros conciudadanos, porque ellos también han sufrido y sufren esas situaciones diariamente.

* **Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV):** He prolongado tu intervención para dar dignidad al testimonio, y te he otorgado 5 minutos más, por lo que te agradecería que lo tuvieras en cuenta.

* **5ª Tnte. de Alcalde Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV):** En primer lugar, queremos decir que vemos bien la propuesta de Aralar, y que votaremos a favor.

* **Concejal Sr. Maeztu Perez (Aralar):** Al hilo de lo que ha expuesto Urdaspal, vemos como a menudo, cuando se hace referencia a otros pueblos, declaraciones del tipo de esta moción se acuerdan por unanimidad; sin embargo, en este caso, si donde dice Marruecos dijera España, y si donde dice Sahara dijera Euskal Herria, ahí ya nos costaría más aceptarlo; te-



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

tekeela. Hori asko kostatzen zaigu eta sekulako erraztasuna dago beste herri batzuetan egiten diren gehiegikeriak salatzeko eta bertan egiten direnak ez ikusteko.

* **Bolinaga Mallabiabarrena jaunak (Bildu)**: Bakarrik barkamena eskatu agian nire tonua ez delako egokiena izan, baina ulertuko duzuen moduan, lagun baten horrelako testimonioak irakurtzea oso gogorra da.

Beste behin, oraingo honetan lasaiago, esan nahi diot gobernu taldeari ondo dagoela egin dutena eta ni ere ados nago, baina mesedez, arduratu Durangoko herritarrekin ere bai. Deitu familieiei, arduratu beraietaz. Adibidez aipatu dudan familia hau Durangokoa da, ez dute inongo babesik jaso udal-etxetik, ez dute inolako deirik jaso, ez dute inongo ardurarik ikusi.

* **5. Alkate Ordea Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Errepikatu gure aldeko bozka eta bakarrik esan gobernu talde hau zentzu guztietan eta norabide guztietan indarkeria eta biolentzia jasan dutenen inguruan ardura izan duela beti, orain eta 30 urtetan zehar, zentzu guztietan biolentzia jasan izan duten guztiekiko ardura izan duela.

* **Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Nik gehiago gehituko dut. Bertara eta nire bulegora etorri den familiaren bati ere laguntasun pertsonala eman diot. Bozkatu egingo dugu Aralarrek proposatutakoa barruan sartuta.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, **ONARTU EGITEN DU** goian zehazturiko mozioaren testua. Testuari gehitu egiten zaio Aralarreko bozeramaileak egindako proposamena, alegia, gure herriko sarreretan anaitze hori gogoratzen duen plaka bat ezartzea eta Saharako bandera plaka horretan jasota geratzea.

nemos una facilidad impresionante para denunciar las barbaridades que se cometen en otros países, cuando nos cuesta tanto ver las que ocurren aquí.

* **Concejal Sr. Bolinaga Mallabiabarrena (Bildu)**: Me gustaría disculparme porque quizá mi tono no haya sido el adecuado, pero como comprenderéis, es muy duro leer este tipo de testimonios de un amigo.


Una vez más, y en esta ocasión con más tranquilidad, quiero decirle al Equipo de Gobierno que está bien lo que ha hecho; yo estoy de acuerdo, pero nos gustaría que demostraseis también la misma preocupación por vuestros ciudadanos. Llamad a las familias, preocuparos por ellas. Por ejemplo, la familia que he mencionado es de Durango; no han recibido ninguna amparo por parte del Ayuntamiento, no han tenido ninguna muestra de preocupación.

* **5ª Tnte. de Alcalde Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Vuelvo a repetir que votaremos a favor, y sólo añadiré que este Equipo de Gobierno ha demostrado en todos los sentidos y en todas las direcciones su preocupación por aquéllos que han sufrido y han padecido la violencia; siempre, ahora y durante 30 años, siempre se ha preocupado por aquellos que han padecido la violencia en todos los sentidos.

* **Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Quisiera añadir algo más. Yo les he ofrecido mi ayuda personal a las familias que se han presentado en mi oficina. Votaremos incluida en la moción la propuesta de Aralar.

PREVIA votación realización al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, **APRUEBA** el texto de la Moción anteriormente transcrita, con la inclusión de la propuesta formulada por el Portavoz de Aralar, de instalar placas que recuerden ese hermanamiento en las entradas de nuestro municipio, y que la bandera aparezca en esas placas.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

► OSOKO BILKURA • Ayuntamiento Pleno

► Akta

Acta

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Bigarren puntu bat daukagu gai-ordenatik kanpo eta atzo Bozeramaleen Batzordean onartu zen sartzea pleno honetan. Kasu honetan urgentzia ere bozkatu beharra dago. Gaia azalduko dut; dakizue-nez hurrengo plenoa martxoaren 26an izan be-harko litzateke, baina Aste Santuan sartzen gara eta proposatzen dena da martxoaren 26tik 19ra pasatzea ohiko pleno hori. Lehenengo urgentzia eta gero egunez aldatzearena.

Lehenengo, asunto hau osoko bilkurako gai-zerrendan sartu ahal izateko urjentzia bozkatzeko da. Emaita hauxe:

- Aldeko botoak: HEMERETZI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 6 Bildu, 3 Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Alderdi Popularra.
- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: BI, 2 Aralarrekoa.

Hortaz, gehiengoaren botoekin, gai-zerrendan sartzeko **urjentzia onartu egiten da**.

Bigarren, martxoko osoko bilkuraren data aldatzea bozkatzeko da. Emaita hauxe:

- Aldeko botoak: HAMAIRU, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 3 Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Alderdi Popu-larra.
- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: ZORTZI, 6 Bildu eta 2 Aralarrekoa.

Hortaz,

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Tenemos un segundo punto, fuera del orden del día, que ayer en la Junta de Portavoces acordamos incluirlo en este pleno. En este caso, también tenemos que votar su urgencia. Expondré el tema; como sabéis, el siguiente pleno tendría que ser el 26 de marzo, pero como es Semana Santa, se plantea cambiar ese pleno ordinario del 26 al 19 de marzo. Primero, la urgencia, y después, el cambio de fecha.

En primer lugar se somete a votación la urgencia de incluir este asunto en la presente sesión plenaria, obteniéndose el siguiente resultado:


- Votos a favor: DIECINUEVE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 6 de Bildu, 3 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 del Partido Popular.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: DOS, 2 de Aralar.

Por lo tanto, por mayoría, se **aprueba** la **urgencia** de su inclusión en el orden del día de la presente sesión.

En segundo lugar se somete a votación el cambio de fecha del pleno ordinaria del mes de marzo, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: TRECE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 3 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 del Partido Popular.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: OCHO, 6 de Bildu y 2 de Aralar.

En su vista,



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoekin, **martxoko ohiko plenoa aurreratzea** onartu egiten du 26an izan barik **martxoaren 19an** izango da.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, aprueba **adelantar la sesión plenaria ordinaria del mes de Marzo**, del día 26 al **19**.

HAMAR.- ESKERAK ETA ITAUNAK.

- **Bolinaga Mallabiabarrena jaunak (Bildu):** Nik galdera bat gobernu taldeari gaur jaso dudán aldizkari baten inguruan. Jakin nahi dut zenbat diru eman dion gobernu taldeak zuen Dot aldizkariari, edo beste modu baten esanda, zuen komunikazio arduradunari, hau da, Doteko presidenteari egiten diot galdera, Alaini, alegia.

Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Ez, galderak Alkateari egiten zaizkio.

- **5. Alkate Ordea Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV):** Galdera bat da eta erantzunaren arabera eskaera bat ere. Jakin nahi dugu ea merkatuko baserritarren mahaia egin den, eta, horrela balitz, eskaera egiten dut batzar horretako azterturiko gaiak batzordera eramán daitezela, eta, posible balitz, batzorde horietako kideei batzarraren akta helaraztea.

DIEZ.- RUEGOS Y PREGUNTAS.


- Concejal **Sr. Bolinaga Mallabiabarrena (Bildu)**: Yo tengo una pregunta para el Equipo de Gobierno en torno a una publicación que he recibido hoy. Me gustaría saber cuánto dinero le ha proporcionado el Equipo de Gobierno al periódico Dot. Le dirijo la pregunta a vuestro responsable de comunicación, es decir al Presidente de Dot, a Alain.

Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): No, las preguntas se le hacen a la Alcaldesa.

- **5ª Tnte. de Alcalde, Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Se trata de una pregunta, que dependiendo de la respuesta, se convertirá también en una petición. Nos gustaría saber si se ha creado la mesa del mercado de los baserritarras, y si así fuera, solicito que se lleven los temas allí tratados a la comisión, y que si es posible, se les facilite a los miembros de esa comisión el acta de la reunión.

Gai-zerrendan jasotako asuntoak amaitu ostean, eta 19:05ak direnean, alkate-presidenteak amaitutzat ematen du batzarra, eta akta jasotzeki ekiten zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 19:05 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría



OSOKO BILKURA · Ayuntamiento Pleno



Akta

Acta